

Jone Arroita Jauregi

**Egungo euskal haur eta gazte
literatura: katalogo bat**

**Literatura infantil y juvenil
vasca actual: un catálogo**

**Contemporary Basque Literature for
Children and Young People:
A Catalog**



Euskal Antologiak Saila

Zuzendaria: Mari Jose Olaziregi

Diseinua eta maketa: Jose Luis Agote

Azaleko irudia: Juan Azpeitia, 2012

© Jone Arroitauregi, 2012

© Literatur testuena: Pello Añorga, Pako Aristi, Bernardo Atxaga, Enkarni Genua, Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Karlos Linazasoro, Miren Agur Meabe, Joxantonio Ormazabal, Ruben Ruiz, Patxi Zubizarreta

L.G. SS-1900/2012

ISBN 978-84-616-2312-9

Etxepare Euskal Institutua

Prim, 7 - 1

E-20006 Donostia-San Sebastián

etxepare@etxepare.net

www.etxepareinstitutua.net

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S.L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain (Gipuzkoa)

AURKIBIDEA

SARRERA.....	7
Pello Añorga.....	11
Pako Aristi.....	17
Bernardo Atxaga.....	21
Enkarni Genua.....	29
Juan Kruz Igerabide.....	35
Mariasun Landa.....	49
Anjel Lertxundi.....	59
Karlos Linazasoro.....	67
Miren Agur Meabe.....	73
Joxantonio Ormazabal.....	79
Ruben Ruiz.....	87
Patxi Zubizarreta.....	93
EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURARI BURUZKO BALIABIDEAK ..	103
BIBLIOGRAFIA.....	105

SARRERA

–Errak hamahiru!

–Ez dok hamahiru!¹

Aukeratu beharrak beti dakar dena hartu ezina, eta den zerbait edo den norbait aukeratik kanpo uzteko arriskua. Antologia hau putzu horretan erori dela dakigun arren, arrautzak otarrean, hilabeteak urtean edo apostoluak eliz atarian bezala jarri ditugu ilaran hamabi idazle, “*ez dok hamahiru*” euskal kulturgintza garaikidearen lelo eza-gunaren babesean. Daudenak direla argi daukagun moduan, ez dauden batzuk ere badirela uste dugu, baina zenbakien magiari bere bidea egiten utziko diogu oraingoan.

–Errak bederatzi.

*–B-e-d-e-r-a-t-z-i letra eder; [...]
gure mundua bera duk bat.*

Euskal haur eta gazte literaturak aro garaikidean historia laburra duela esan daiteke. XX. mendean, Francoren diktadura-aldian euskal kulturak eta euskarak jasandako jazarpenaren ondorioz, hezkuntza sistema guztiz erdaldunduta zegoen Hego Euskal Herrian.

Urte batzuk lehenago, Ipar Euskal Herrian, Marijane Minaberrik euskal haur literaturaren aro berria hasi zuela esan daiteke. Aurretik izan ziren beste lan batzuk, baina *Xoria kantari* (1965) da literatura kutsu handiena duen bere liburua, nahiz eta besteetan ere nabarmena izan estetika zela bere helburu nagusia.

Poliki-poliki, 70eko hamarkadaren bueltan, Euskal Herri osoan, eskola euskaldun berria ezartzen hasita zegoela ikastolen mugimen-

1. Lertxundi, Anjel. (2002) Errak bat (eta II), 38-41. *Aizak eta aizan elkarrekin dantzaz.* Elkar.

duaren inguruan, bertan irakasle hasi ziren gazte askok irakurgaiak eta testu liburuak euskaraz sortzeko premia larria zegoela ikusi zuten. Horietako batzuek idazle izateko sena ere bazuten, eta garai hartan egindako ahaleginak ibilbide oparo baten hasiera izan ziren.

–*Errak bost.*

–*Bost kontinente handi; [...]
gure mundua bera duk bat.*

Idazten hasteko eredu bila jarri zirenean, bi iturri desberdinetatik edan zuten idazle hauek: batetik, Europa aldeko eredu garaikideak zituzten begien bistan, hara nola, Gianni Rodari eta bere *Fantasiaren gramatika*; errealismo soziala garatzen ari ziren Christine Nöstlinger eta Maria Gripe; edota fantasiaren bidez gizartearen gaitzez hausnarketak proposatzen zituen Michael Ende. Ildo honetan kokatu daitezke Mariasun Landaren lanak, eta horrela hasi zen, adibidez, Anjel Lertxundi bera. Hurrengo hamarkadetan idazten hasi zirenen belaunaldian, Patxi Zubizarreta edo Pako Aristik ere badute hortik zerbait.

–*Errak hamaika.*

–*Eginahalak hamaika; [...]
gure mundua bera duk bat.*

Baina, bestetik, tradiziozko ahozko literatura berreskuratzeko konpromisoa ere nabarmena izan da euskal haur eta gazte literaturan, transmisioan emandako etena gainditzeko asmoz. Ikerketa teorikoaren eskutik, babesa eman zioten behar horri Anjel Lertxundiren *Haur literaturaz* (Erein, 1982) edota Juan Kruz Igerabideren *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura* (Erein, 1993) lanek.

Lan hauetan nabarmentzen da ahozko literatura hizkuntzaren senaren gordailu izan dela, eta antzinako moldeei eutsi diela. Altxor horrek hizkuntza afektibo baten transmisioa egiteko aukera ematen du, eskolan lantzen den hizkuntza instrumentala baino harago. Berreskuratze lan horretan, ezinbestekoak izan ziren Jose Migel Barandiaran (1889-1991), Resurreccion Maria Azkue (1864-1951), Jose Gonzalo Zulaika, *Aita Donostia* (1886-1956) edo Wentworth Websterrek (1828-1907) jasotako lekukotasunak, edo Manuel Lekuona (1894-1987),

Juan Mari Lekuona (1927-2005), Jesus Mari Satrustegi (1930-2003) edo Joxe Arratibelek (1923-2011) egindako ekarpenak. Hauetatik abiatuta, eta iturriari gehiago edo gutxiago helduta, Anjel Lertxundi, Juan Kruz Igerabide, Pello Añorga edo Joxantonio Ormazabalek hainbat poesia eta prosa lan ekarri dizkigute. Berreskuraketa lan honetatik ez hain urruti, Enkarni Genuak txotxongiloa ekarri zuen euskal haur literaturara, antzerkigintza nolabait bultzatuz.

*–Errak zazpi.
–Asteak zazpi egun; [...]
gure mundua bera duk bat.*

Zer esanik ez, egia biribilek beti dute aurrean jartzen zaien beste egia biribilago bat, eta idazleek idazteagatik, sortzearen plazer edo beharrarengatik ere idazten dute noski; hain zuzen, hezkuntzaren beharretatik askeago sentitu zen unean, literatura airatu eta beste eremu batzuetan ere loratzen hasi zen, eta belaunaldi berriak iritsi ziren: goizago, Bernardo Atxaga, edo beranduago, Karlos Linazasoro, Miren Agur Meabe edo Ruben Ruiz.


Horrela, 1990ean Galtzagorri Elkarteak sortu zen, bi helburu nagusirekin: haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzea eta euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutaraztea. Elkarteak, hortaz, literaturgintza mota horrekin harremana duten bazkideek osatua da: idazle eta ilustratzaile, ipuin kontalari, irakasle, bibliotekari, itzul-tzaile zein liburu saltzaile.

Euskal haur eta gazte literaturak gaur egungo liburu ekoizpenean duen pisuaz jabetzeko, 2010ean euskaraz argitaratu ziren² 1.879 izenburuetatik, %15 inguru (278 lan) helduen literaturari zegokiola ikustea besterik ez dago eta %28 (532 lan) haur eta gazte literaturari.

*–Oilarra hasi da kantuan,
argia egin da zeruan,
neure arima uzten diot
egun berriari altzoan.*

2. 2010eko euskarazko argitalpenen buruzko VI. txostena. Euskadiko Editoreen Elkarteak. http://www.editores-euskadi.net/images/stories/2010EKO_EUSKARAZKO_ARGITALPENEL_BURUZKO_VI_TXOSTENA.pdf

Egungo egungoekin amaiera eman beharko diogu sarrera honi, euskal kantu zaharretan ohi denez. Gauza gehiago daude aipatzeko, eta, horien artean, ez genuke ahaztu nahi idazle hauek idatzitako liburuak osatzeko ilustratzaileek egiten duten lana, hasi aitzindarietatik, Asun Balzola (1942-2006), Juan Carlos Eguillor (1947-2011), Jesus Lucas, Antton Olariaga edo Jon Zabaleta; jarraitu Jokin Mitxelena eta Elena Odriozolarekin; edo azkenengo urteetako loraldiaren ilaran Aitziber Alonso, Iban Barrenetxea, Eider Eibar, Maite Gurrutxaga edo Iraia Okinarekin bukatzeko. Baina argia da zeruan eta biharko utzi beharko ditugu.



PELLO AÑORGA

(Oiartzun, 1956)

Soslai bio-bibliografikoa

Donostiako Irakasle Eskolan ikasi ondoren, 1976tik aurrera irakasle izan zen Oiartzungo Ikastolan hamar urtez Pello Añorga. 1986an ikastola utzi, eta gelan kontatzen zituen ipuinak edonon kontatzen hasi zen buru-belarri. Mondragon Unibertsitatean eta Eskoriatzako Irakasle Eskolan aritu da, eta Haur Liburu Mintegiaren sortzaileetako bat izan zen. Haur liburu animaziogintzan hainbat proiektutan parte hartu du, eta ipuin kontaketa buruzko ikastaroak eskaintzen ditu nonahi. Idazle modura, haur literatura landu du, ipuina, batik bat; baina poesia eta albumarekin ere saiatu da.

Eskolak eman eta ipuinak kontatzen zituenarekin batera, bere lehen liburuak aurkeztu zituen. *Hola hala behin* (Erein, 1983) lanean, lehenengo argitaratutakoan, hitzarekin jolas egitea proposatzen zuen, eta lan horretan ari da oraindik ere, berdina proposatzen baitigu *Gure hiztegi magikoan* (Aizkorri, 2012).

Kontaktari eta ahots gora irakurtzeari ematen dien garrantziaren erakusle dira baita ere *Ipuin-kontalariarenak: Ipuin-kontalaria* (Aizkorri, 2008), *Ipuin-kontalariaren lapikoa* (Aizkorri, 2009) eta *Ipuin-kontalariaren arbela* (Aizkorri, 2010). Guztietan protagonista kontalari bat da, bere *alter egoa* izan daitekeena, eta aurrean haur talde bat du. Ahozkotasan eta iturri tradizionaletatik abiatuz, ahots gora irakurtzeko ipuin umoretsu eta ongi egituratuak jartzen dizkigu esku artean idazleak.

1984an beste sail bat hasi zuen, *Pottoko* (Elkar, 1984) hain zuzen. Baserri giroan bizi den mutil bat da protagonista, eta eguneroko abentura txikien bidez, haurren munduko une gazi-gozaok kontatzen ditu, umoreaz baliatuz betiere.

Añorgak haurren psikologia ondo ezagutzen du, eta gai zailtzat jotzen direnez aritu izan da behin baino gehiagotan bere liburuetan, heldu eta haurren artean horietaz hitz egiteko parada emanaz: dela bakardadea *Lientzo txuria*-n (Elkar, 1991); edo dela heriotza *Zaintxo*-n (2009). 2003 eta 2004an Elkarren argitaraturiko *Birundan* bilduman ere heriotza, bakardadea edo desberdin sentitzea dira aipatzen dituen gaiak.

Poesian ari denean soinuekin asko jolasten du Añorgak: nabarmena da hau *Jiran-biran* (Aizkorri, 1998) obraren kasuan adibidez. Aurrerago, nahiz eta poema motz eta oso erritmikoeekin jarraitu, hitzen esanahiak ere bere lekua hartzen du: *Zuni* (Aizkorri, 2006). *Txori kantariak poeta hegalaria* (Elkar, 2003) eta *Zaldiko-maldikoan* (Aizkorri, 2003) lan kolektiboetan ere argitaratu ditu poemak.

Azkenik, azpimarratzekoa da Jokin Mitxelena ilustratzaile oiar-tzuarrarekin izandako elkarlana, *Pottoko*-rekin hasi, eta harrezkero, beti bikotean lan egin baitute. Añorgaren obrak aukera paregabea ematen digu Mitxelenaren bilakaera ikusteko ia 30 urtetan zehar. Nabarmentzekoa da, euskal haur eta gazte literaturan eredu bakane-takoa baita, autoedizioan egin zuten saiakera *Zupankapaloak* (Añorga-Mitxelena, 1999) lanarekin. Bertan poesia eta aforismo zoroen nahasketa eskaintzen dute, ilustrazioekin lotura zuzenean.

Elkarlan honen emaitza dira baita ere Añorga eta Mitxelenak egindako bi albumak: *Gerlari handia* (Pamiela-Kalandraka, 2007), I. Etxepare Saria jaso zuena, eta *Ama erraldoia* (Eusko Jaurlaritza, 2008). Esan genezake biak Añorgaren beste obra baino publiko hel-duago bati zuzenduak direla.

Gerlari Handia-ren kasuan pertsonon barne grinez eta nork bere buruaren ezaguerari buruz hitz egiten digu, ipuin orientalen kutsua duen honetan.

Ama erraldoia-k, berriz, idazlearen beste arduretako batzuk azal-erazten ditu, batetik naturarekiko ardura, eta bestetik kosmogonia bat eraikitzeko beharra, nondik gatozen eta nora goazen ulertzeko.

Antzeko gaia jorratu zuen *Txinpartaren izakiak* (Elkar, 2002) eleberrian, baina gaztetxoagoi zuzenduta orduan.

Sariak

- *Jenio gaiztoa*. Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza. (2008)
- *Gerlari handia*. I. Etxepare beka saria: haurrentzako albumak sortzeko. Nafarroako udaletako Euskara Zerbitzuak. (2008)

Bibliografia

- Hola hala behin*. Erein, 1983
Pottoko. Elkar, 1984
Tio Xentimo. Erein, 1984
Asto bonbero. Erein, 1985
Asto bonberoren lehenengo abenturak. Erein, 1985
Pottokoaren izeba Juanita. Elkar, 1985
Pottokoren usainak. Elkar, 1985
Lau tuntun eta berrogei jubilatuta. Elkar, 1986
Wanted live or dead Anttoni Bill. Pello Añorgaren oesteko bandidoa. Elkar, 1987
O babarruntxo elektriko. Elkar, 1988
Top kapitainaren nabiganteak. Elkar, 1988
Joakina Brandoren inspirazioa. Elkar, 1989
Errege Federiko handiaren arrautzak. Elkar, 1990
Lientzo txuria. Elkar, 1991
Arrain gorria. Pamiela, 1996
Jiran-biran. Aizkorri, 1998
Pottoko tripontzia. Elkar, 1999
Zupankapaloak. Añorga-Mitxelena, 1999
Bide magikoa. Aizkorri, 2000
Pottokoren otsoa. Elkar, 2000
Txinpartaren izakiak. Elkar, 2002
Ni ez naiz txerria. Elkar, 2003
Adio, adio! Elkar, 2003
Txori kantariak poeta hegalaria. Elkar, 2003
Zaldiko-maldikoan. Aizkorri, 2003
Haur zeru-lurtarra. Elkar, 2004


Ahulerio. Elkar, 2004
Ez dut irakurri nahi. Aizkorri, 2005
Zuni. Aizkorri, 2006
Gerlari Handia. Pamiela, 2007
Jenio gaiztoa. Aizkorri, 2007
Ama erraldoia. Eusko Jaurlaritza. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008
Ipuin-kontalaria. Aizkorri, 2008
Burua. Elkar, 2009
Ipuin-kontalariaren lapikoa. Aizkorri, 2009
Zaintxo. Erein, 2009
Ipuin-kontalariaren arbela. Aizkorri, 2010
Pottoko hipermerkatuan. Elkar, 2010
Gure hiztegi magikoa. Aizkorri, 2012
Memoriaren zuhaitza. Elkar, 2012

Itzulpenak

- *Gerlari handia*:
El gran guerrero. (Faktoria K, 2007: itz. Añorga, P.) (Gazt.)
O gran guerreiro. (Faktoria K, 2007: itz. Ballesteros, X.) (Gal.)
- *Ama erraldoia*:
Madre gigante. (Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2008: itz. Markuleta, G.) (Gazt.)

Obra lagina

Haurrari hurbiltzeko modu zuzenena belarria denez, ahozketasuna defendatzen du Añorgak. Berezitasun hori idatzizko lanetan ere islatu nahi du, ahots gora irakurtzeko moduko testuak moldatuz. Horretarako, sarri tradizioaren eskutik joaten da.



Ipuin-kontalariaren lapikoa.

Il. Jokin Mitxelena. Aizkorri, 2009:
4-12. orr.

Lapiko bat ekarri du gaur Ipuin-kontalariak; honetaz gainera, su txikia. Eta zer egin du? Bada, su txikia piztu du herriko liburutegian. Eta gu eseri egin gara lapikoaren aurrean, telebistaren aurrean eseriko bagina bezala. Eta esan du: «Krik!». Eta denok erantzun dugu: «Kraak!». Eta esan du: «Txokolate, txokolate, ipuina bukatu arte».

Esnea bota du lapikora eta kontatu du ea zenbat neska mutiko gauden eserita: bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi eta hamar, hamar neska-mutiko gaude, eta, horregatik, kontatu du Hamar sagutxoen ipuina.

Aitak eta amak egunero esaten omen zien hamar sagutxoei:

–Kontuz ibili gero, Katu handiarekin, bestela jan egingo zaituzte-eta!

Ordea, hamar sagutxoek erantzuten:

–Lasai, ama, lasai, aita, gu ez gara tontobuztanak-eta!

Eta Ipuin-kontalariak abestu du, lapikoa maneatzearrekin batera:

*«Sagu txiki, sagu maite,
zuloxoan sartu zaitetz,
Xapik ikusten bazaitu
kris-kras, kris-kras, jango zaitu»*

Eta guk: «Ez nau jango!» Eta Ipuin-kontalariak: «Jango zaitu!»

Eta kontatu du nola hamar sagutxoak, eguraldi bero batean, joan ziren siesta egitera erreka-ondora. Bertan loak hartu, eta, orduan,

nola agertu zen Katu Handia. Eta zer egin zuen? Bada, hamar sagutxoak lotan zeudela, isil-isilik, hatzaparretik heldu, eta sartu egin zituen zorro batean, banan-banan.

Zorroan sartu hamar sagutxoak, eta kontatu egin zituen: bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, eta hamar, justu hamar sagutxo, ai, ene! Eta sagutxoak garrasika hasi ziren:

–Ama, aita!!! Ama, aita!!!

Eta gu ere garrasika hasi gara:

–Ama, aita!!! Ama, aita!!!

Eta orduan gertatu da gure gurasoak sartu egin direla liburutegian, galdezka, aztoratuak:

–Zer, zer gertatzen da, zer gertatzen da?

Eta guk erantzun diegu ipuina kontatzen ari dela Ipuin-kontalaria, eta isilik egoteko, eta, mesedez, atea ixteko, «Txokolate, txokolate, ipuina bukatu arte».



PAKO ARISTI

(Urrestilla, 1963)

Soslai bio-bibliografikoa

Kazetaritzan lizentziatua, Pako Aristik hainbat komunikabidetan kolaboratu du, eta literatura-genero gehienak landu ditu helduei zuzendutako lanetan.

Haur eta gazte literaturari dagokionez, narratiba landu du, eta, *Martinellok ez du kukurik entzuten* (Erein, 1985) izan zen argitaraturiko lehen lana.

Belandia irudimenezko landa-parajeen kokatu ditu, helduentzako zenbait eleberri bezala, izenburu sorta desberdinak, hala nola, *Martinello eta piratenak* (Erein, 1986-1987), *Mertxe Pandeletxe eta Mari Bexamelenak* (Erein, 1991), edota *Nemesioren abenturak* (Elkar, 2003, 2004, 2010). Liburu hauetan hainbat haur talderen eguneroko abenturak kontatzen dizkigu Aristik, halako tonu nostalgiko batean murgilduta, baina umore puntua galdu gabe.

Jorratutako beste bide bat heziketa-nobelarena da, eta kasu honetan, protagonista gehienak neskak direla azpimarratu daiteke, hala nola, *Deborah, hondartza bakarti batean* (Erein, 2002), haurdun dagoen neska gazte baten kronika; *Kuxkuxero Press* (Erein, 2003), aitonari bere aldizkari digitalarekin lagundu nahi dion neska bikotea; *Txabola terapeutikoa* (Elkar, 2006), gaixotasun bat gainditzeko aitona-amonen baserrira astebete pasatzera doan neskarena; edota *Miren nunca mais!* (Elkar, 2007), galtzeko joera duen neska batek hiri ezeza-

gun batean bizi behar dituen abenturak, harik eta gurasoekin berriz elkartzen den arte.

2010ean eta 2011in Elkar argitaletxeak gauzatutako *Gipuzkoako historia* eta *Gure pertsonaiak* ezagutzera emateko proiektuan parte hartu zuen, kontakizun historiko eta biografikoak eskainiz.

Scott Barberenaren bizitzako lehen pausoak (Elkar, 2011) da Pako Aristiren azkenengo lana. Euskal argitalpen munduan esperimendu berritzailetzat jo daiteke liburu hau. Jose Luis Zumeta margolariaren ekarpena idazlearen mundu fantastikoarekin uztartzen da. Hau ere heziketa-nobela bat da, baina kapitulu egiturak baditu metatze-ipuien hainbat ezaugarri, atal bakoitzean batzen zaien pertsonaia adibidez. Horrez gain, pertsonaiek, aurkezpen moduan, eta beraien emozio egoerak adierazteko, bertso eta poesiak erabiltzen dituzte. Tradizio onenean txertaturiko haur eta gazte literatur lan handien zantzuak ere nabarmenak dira, Lewis Carrolen *Alice*-renak, besteak beste.

Bibliografia

- Martinellok ez du kukurik entzuten*. Erein, 1985
Martinello eta sei pirata: abenturak. Erein, 1986
Din, dan, don... kanpai-lapurrak non? Elkar, 1987
Miren, Garbiñe eta sorgin baten komeriak. Elkar, 1987
Zazpi pirata balsa batean: Martinelloren abenturarik politenak. Erein, 1987
Hamasei paisa eta paralitiko bat. Erein, 1988
Jantoki txinoan. Erein, 1991
Azken lamiaren bila. Erein, 1991
Itsasontzi baten. Erein, 1991
Keniako tximeleta. Erein, 1991
Benetako lagunen aterbea. Ibaizabal, 1998
Nire Uztapide. Bertsolari Elkarte, 2000
Egun normal bat amonaren baserrian. Erein, 2001
Deborah hondartza bakarti batean. Erein, 2002
Kuxkuxero Press. Erein, 2003
Nemesioren itzala. Elkar, 2003
Nemesioren elefantea. Elkar, 2004
Txabola terapeutikoa. Elkar, 2006
Miren nunca mais! Elkar, 2007

Ez zait irakurtzea gustatzen. Elkar, 2008
Elurte bateko ipuinak. Erein, 2009
Opari bat egunsentian. Elkar, 2010
Zilarrezko txanpon bategatik. Elkar, 2010
Nemesioren trikitixa. Elkar, 2010
Ignazio Loiolakoa: aingeruen gerlaria. Elkar, 2011
Jose Maria Iparragirre: haizearen semea. Elkar, 2011
Scott Barberenaren bizitzako lehen pausoak. Elkar, 2011

Obra lagina

Gaztetxoek helduarorako bidean dituzten gorabeherak jartzen ditu agerian idazleak askotan. Nabarmena da hau lan honetan, non lehenengo pertsonan kontatzen dizkigun Mirenek bere kontuak, galdu eta gero bizi dituen abenturetan murgildurik dagoen bitartean. Beti umore puntu batekin, baina egunerokotasunarekin lotura galdu gabe.



Miren nunca mais!

Il. Eider Eibar. Elkar, 2007: 51-52. orr.

Galdu egin naizela aitortzeko moduan naiz berriro eta gainera lehen egunean: azken eguna izan balitz, sikiera, jada ezagutuko nuen hiria, eta gutxi-asko asmatuko nuen hotelera edo ingurura hurbiltzen. Baina lehen egunean, ezagutzen ez dudan hiri batean, zer egin behar dut? Hamar urte besterik ez dauzkat.

Zer egin behar dut? Negarrez hasi? Beldurtu? Histerika jarri, behin armiarma bat ikusi ondoren, aitaren inpresora gainera igo eta

irristatuz ordenagailua lurrera bota eta disko gogorreko programa guztiak ezabatu nizkionean bezala?

Patxadan hartuko dut egoera. Amak esan zuen atzo Santiagoko parte zaharra oso polita dela, eta ez dela hain handia. Eta ni parte zaharreen nago. Hemen buelta batzuk eman ez gero aurkituko ditut gurasoak, eta gurasoak ez badira udaltzainen bat, hotelera eraman nazan. Patxada galtzen ez badut ondo bukatuko da dena; gainera, gurasoak ere ariko dira nire bila, ezta? Edo ez? Ziur aski bai, normalean nota onak ateratzen ditut, eta ohea ere gehienetan eginda uzten dut; beno, askotan; beno, batzuetan bai, behintzat. Gela ere jasotzen dut hilean behin edo; eta amari baratxuriak edo arrautzak ahazten zaizkionean, hor joaten naiz bila dendara zintzo-zintzo, pasa den astean eskailere-tan erori eta dozena bat arrautza puskatu zitzaidan arren.

Tira, utz ditzagun iraganeko gauzak. Burua horrela ibiltzen zaigu, txori ero bat bezala adar batetik bestera saltoka, burutazio batetik bestera jauzika, ezer probetxuzkorik egin gabe, errealtatetik ihesi beti. Errealitatea: zer da errealtatea? Nik neurea dakit: une honetan galduta nagoela eta zerbait egin behar dudala.

Kale luze batean aurrera joatea erabaki dut. Hemen ez dabil autorik. Harrizko kaleak dira, oinezkoentzat gordetakoak; zein ederki ibiltzen den autorik gabeko kaleetan! Jende asko dabil, baina ume gutxi. Gehienak helduak dira, batzuk presaka doaz; euren sudurra- ren aurrera baino ez dute begiratzen. Beste batzuk patxadan dabilta, dendak ikusiz, tabernetako jan zerrendak irakurritz.

Baina udaltzainik bat bera ere ez. Non sartzen dira haien beharra daukazunean? Hori esaten du aitak: gaizki aparkatu duzunean, taka agertzen da beti udaltzainen bat; baina kale bat non dagoen galdetu nahi duzunean, inondik ere ez da bat bera ere ikusten. Munduak zergatik izan behar du beti aldrebes?

Kale luze honen bukaeran enparantza ikaragarri bat agertu da. Gure auzo osoa kabituko litzateke hemen! Horman dagoen txapa batek "Praza do Obradoiro" jartzen du. Obradoiro, Obradoiro, ezaguna egiten zait. Ez al da saskibaloitako talde bat?



BERNARDO ATXAGA

(Asteasu, 1951)

Soslai bio-bibliografikoa

Joseba Irazu Garmendia benetako izenez, 1973an Zientzia Ekonomikoetan lizentziatu zen Bilboko Unibertsitatean. 1981etik 1984ra bitartean Filosofia ikasketak egin zituen Bartzelonako Unibertsitate Zentralean. Hasieran ogibide desberdinak izan zituen (ekonomialari, euskara irakasle, liburu saltzaile, inprentako langile, irratiko gidoi-lari...), harik eta 1980an literatura arloan buru-belarri lan egitea erabaki zuen arte.

2006an Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen, Juan Mari Lekuona zenaren hutsunea betetzeko, eta Jakiundeko (Zientzia, Arte eta Letren Akademia) kide ere bada, Literatura arloan. Horiez gain, *Erlea* literatura aldizkariaren zuzendaria da.

Bere lan gehienak itzuliak izan dira hainbat hizkuntzatara, eta horrek oso ezagun egin du Euskal Herritik kanpo.

Bere ibilbidean, haur eta gazte literaturak bidaia paralelo bat egin du helduentzako idazlanen ondoan.

Lehenengo lanak, Juan Carlos Eguillor ilustratzailearekin batera egin zituen 1979an, formatu handiko bi liburu argitara eman zituzte-larik: *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* eta *Ramuntxo detektibea* (Antonio San Román-Sadkok argitaratuta, gero Erein eta Elkar argita-letxeek berreskuratua). Testu eta irudien arteko loturan nabarmena da bi egileen elkarlana. Edizio oso zainduak izan ziren, koloretako

irudiekin, eta formatu egoki batean argitaratuak. Bietan Bits Bapuruxtarren abenturak kontatzen dira, umorea eta disparatea baliatuz, hitz jolasetan eta ateraldietan oinarritutako testuetan. Pertsonaiak, kasu askotan, hitz egiteko moduarekin eraikitzen dira.

1982an, Atxaga eta Eguillorren elkarlanaren emaitza *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (Erein) liburua izan zen, hau ere album formatuan argitaratua. Umorearen bidetik jarraitzen du idazleak, baina pertsonaiak landuago daude eta beraien psikologia azaltzen digu, errealitatea eta ametsaren arteko muga lausoa aitzakia hartuta.

1982a eta 1984a bitartean, Erein argitaletxean, *Siberia treneko ipuinak* bilduma berria hasi zuen Atxagak. Bertan, tren bateko bidaiariek elkar entretenitzeko kontatzen dituzten ipuinak dira lau izenburuen aitzakia. Argumentuak ordura arte baino landuagoak dira, eta idazlea narratzaile moduan azaltzen zaigu, irakurleoi egindako deietan.

1984an, gazteentzat bi ipuin luze argitaratu zituen egileak: *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (Erein) eta *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (Erein). Bietan ere, garai bereko helduen lanetan gertatzen zen bezala, Obaba azaltzen zaigu. Jon Kortazarrek dio bi lan hauek eta *Bi anai* nobelak Obaba zikloa osatzen dutela, “beraietan hasten baita mundu mitiko bat sortzen, espazio guztiak den espazio bat alegia”.

Lehenengo lanaren kasuan, Sebastian gaztearen haurtzarotik helduarora doan bidaia bizi dugu, baserrian senideekin pasatzen duen udan. Mutilak bere burua topatzen du bere aitonak heriotzara bidaiatzen duen artean. Tonu liriko eta malenkoniatsu batean, bidaia biak gurutzatzen dira, bukaera gazi-gozo batera heldu arte.

Bi letter-eko protagonista aldiz, Martin aitona, Ameriketara joan zen gazte garaian artzain lanetara. Jasotako bi eskutitzetan jaioterriko berriak heltzen zaizkio, eta horrek gaztetako kontuak gogoratu eta idatziz jartzera eramango du. Idatzi baino, kontatzen ari dela iruditzen zaigu, bere gaur egungo egoera eta Obaban izandako gertaerak txandakatzen dituen bitartean.

Behi euskaldun baten memoriak (Pamiela, 1991) liburuak beste mugarri bat ezarri zuen Atxagaren ibilbidean. Literatura errealistago bati lotzen zaio, eta bere literatur ibilbidean hirugarren aroa hasten duela dio Mari Jose Olaziregik (1998), baita helduei zuzendutako

Gizona bere bakardadean (Pamiela, 1993), *Zeru horiek* (Erein, 1995) eta *Soinujolearen semea* (Pamiela, 2003) lanetan ere.

Gazteentzat idatzitako nobela honek Mo behia du protagonista, fantasiari keinuak eginez oraindik, baina leku eta denbora konkretu eta erreal batean kokatzen du akzioa: Gerra Zibilaren ondorengo Euskal Herrian, Obabatik aparte, bai modu fisikoan, bai modu literarioan. Tradizioarekin jokatzen du idazleak esaerak bere erara paratuz, euskal kulturaren hainbat erreferente modu umoretsuan itzulipurdikatuz. Baina ez da hori bakarrik: Moren bidaia inizatikoaz gain, liburu honek munduan ibiltzeko jarrera bat erakusten du, umoreaz eta ironiaz baliatuta.

Eta umore eta ironiaren erabilera areagotzen da 90eko hamarkadan *Xola* (Erein, 1995-2011) eta *Bambulo* (Erein, 1998-1999) txakur-rrak protagonista dituzten bi sailetan. Bietan ere txakur berezi hauen ikuspuntutik ezagutzera ematen digu mundua idazleak, gizakion jarreraren ispilu.

Idazlearen webgune ofiziala: www.atxaga.org

Sariak

- *Sugeak txoriari begiratzen dionean*. Lizardi Saria. Zarauzko Udala (1983)
- *Behi euskaldun baten memoriak*. IBBYren ohorezko zerrenda (1994)
- *Shola y los leones*. Espainiako haur eta gazte literaturako edizio saria. Kultura Ministerioa (1995)
- *Xola eta basurdeak*. Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza (1997)

Bibliografia

- Nikolasaren abenturak eta kalenturak*. Antonio San Román-Sadko, 1979
Ramuntxo detektibea. Antonio San Román-Sadko, 1979
Chuck Aranberri dentista baten etxean. Erein, 1982
Antonino Apretaren istorioa. Erein, 1982
Txitoen istorioa. Erein, 1983
Asto bat hypodromoan. Erein, 1984

Jimmy Potxolo. Erein, 1984
Sugeak txoriari begiratzan dionean. Erein, 1984
Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian. Erein, 1984
Flannery eta bere astakiloak saila. Elkar, 1987
Behi euskaldun baten memoriak. Pamiela, 1991
La cacería. Altea, 1991
Xolak badu lehoien berri. Erein, 1995
Xola eta basurdeak. Erein, 1995
Sara izeneko gizona. Pamiela, 1996
Markonitar handien ekintza handiak. BBK fundazioa, 1996
Bambuloren istorio Bambulotarrak: lehen urratsak. Erein, 1998
Bambuloren istorio Bambulotarrak: krisia. Erein, 1998
Bambuloren istorio Bambulotarrak: Ternuako penak. Erein, 1999
Xola ehizan = Catch that mouse. Baigorri, 2000
Zuk-zuk jaunaren alfabeto berria. Elkar, 2003
Zaldiko-maldikoan. Aizkorri, 2003.
Xola eta Angelito. Erein, 2004
Guillermoren azalpena = Guillermo's tale. Baigorri, 2005
Nire jaioterriko jendea. Erein, 2005
Xola eta Ameriketako izeba. Erein, 2011

Itzulpenak

- *Nikolasaren abenturak eta kalenturak*:
Aventuras de Nikolasa. (Antonio San Román, 1980: itz. Atxaga, B.) (Gazt.)
Nikolasa, aventuras y locuras. (Ediciones B, 1989: itz. Atxaga, B.) (Gazt.)
Nikolasa, histories I cabòries (Ediciones B, 1989: itz. Daurella, J.) (Kat.)
Nikolasa. Avventure e sventure. Aventuras y locuras. (Angolo Manzoni, 2010: itz. Piloto di Castri, S.) (It.-Gazt.)
- *Ramuntxo detektibea*:
Ramuntxo detective: más aventuras de Nikolasa. (Antonio San Román, 1980: itz. Atxaga, B.) (Gazt.)
Ramuntxo detective (Ediciones B, 1989: itz. Atxaga, B.) (Gazt.)
Ramuntxo detectiu (Ediciones B, 1989: itz. Daurella, J.) (Kat.)
- *Chuck Aranberri dentista baten etxean*:
Chuck Aranberri ca al dentista (La Magrana, 1985: itz. Daurella, J.) (Kat.)
- *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian; Sugeak txoriari begiratzan dionean*:

- Dos letters; Cuando una serpiente...* (Ediciones B, 1990: itz. Sabán, A.) (Gazt.)
- Dúas letters.* (Galaxia, 1990: itz. García, L.) (Gal.)
- Dues letters.* (Ediciones B, 1990: itz. Hernández, M.) (Kat.)
- Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian.* (Giunti, 1995: itz. Manera, D.) (It.)
- La escritura desatada; Cuando una serpiente.* (Ediciones B, 2000: itz. Sabán, A.) (Gazt.)
- Two Basque Stories.* (University of Nevada Press, 2009: itz. Lete, N.) (Ing.)
- *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian; Sugeak txoriari begiratzen dionean; Bi anai:*
- Historias de Obaba.* (Punto de Lectura, 2001: itz. Sabán, A.; Atxaga, B.) (Gazt.)
- Contes d'Obaba.* (La Magrana, 2001: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)
- Storie di Obaba.* (Einaudi, 2002: itz. Tomasinelli, P.) (It.)
- Price iz Obaba.* (Bozicevic, 2009) (Kroaziera)
- *Astakiloak jo eta jo:*
- Los burros en la carretera.* (Ediciones B, 1992: itz. Sabán, A.) (Gazt.)
- Asini Rock.* (Giunti, 1996: itz. Signorini, L.) (It.)
- *La cacería:*
- Xola ehizan = Catch that mouse.* (Baigorri, 2000: itz. Atxaga, B.; Draper, D.) (Eus.-Ing.)
- *Behi euskaldun baten memoriak:*
- Behi euskaldun baten memoriak.* (Arab Institut for Research and Publishing, 1991) (Arab.)
- Memorie di una mucca.* (Piemme, 1992: itz. Perani, A.) (It.)
- Memorias de una vaca.* (SM, 1992: itz. Sabán, A.) (Gazt.)
- Memòries d'una vaca.* (Cruïlla, 1993: itz. Castanyer, T.M.) (Kat.)
- Kujtimet e një lope.* (Dituria, 1994: itz. Meksi, M.) (Albaniera)
- Memoires van een koe.* (Lemniscaat, 1994: itz. de Bakker, P.) (Neder.)
- Mémoires d'une vache.* (Gallimard, 1994: itz. Gabastou, A.) (Fr.)
- Memoiren einer baskischen Kuh.* (Altberliner Verlag, 1995: itz. Mees, L.) (Ale.)
- Behi euskaldun baten memoriak.* (Mladá Fronta, 1997: itz. Granova, S.) (Czech)
- Memorias dunha vaca.* (SM, 1998: itz. Arias, V.) (Gal.)
- Memorajoj de eŭska bovino.* (Asun Irasa, 1999: itz. Arana, A.) (Esper.)
- Memórias duma vaca.* (Terramar, 2000: itz. Silva Saraiva, J.) (Portu.)
- Memoriile vacutei Mu.* (Humanitas, 2005: itz. Scipione I.C.) (Erruman.)

– *Xolak badu lehoien berri:*

- Xola i els lleons.* (Cruïlla, 1995: itz. Prats i Espar, N.) (Kat.)
Shola y los leones. (SM, 1995: itz. Atxaga, A.) (Gazt.)
Shola und die Löwen. (Altberliner, 1997: itz. Schulz, K.) (Ale.)
Shola e i leoni. (Piemme junior, 1998: itz. Bastanzetti, M.) (It.)
Xolak badu lehoien berri. (Günisigi Kitapligi, 1999: itz. Ayasli, I.) (Turk.)
Shola et les lions. (La Joie de Lire, 1999: itz. Gabastou, A.) (Fr.)

– *Xola eta basurdeak:*

- Shola y los jabalíes.* (SM, 1997: itz. Atxaga, A.) (Gazt.)
La Xola i els senglars. (Cruïlla, 1998: itz. López, G.) (Kat.)
Shola und die Wildschwein. (Altberliner Verlag, 1998: itz. Schulz, K.) (Ale.)
Shola et les sangliers. (La Joie de Lire, 1999: itz. Gabastou, A.) (Fr.)

– *Sara izeneko gizona:*

- Un espía llamado Sara.* (Acento, 1996: itz. Atxaga, A.) (Gazt.)
Un espía anomenat Sara. (Cruïlla, 1997: itz. Geronés, C.; Urritz, C.) (Kat.)
Un espía chamado Sara. (SM, 1998: itz. Arias, V.) (Gal.)
Un uomo in codice. (Adriano Salani, 2000: itz. Deho, L.) (It.)
Un espion nommé Sara. (La Joie de Lire, 2000: itz. Gabastou, A.) (Fr.)

– *Bambuloren istorio bambulotarrak: lehen urratsak:*

- Las bambulísticas historias de Bambulo: primeros pasos.* (Alfaguara, 1998: itz. Atxaga, B.; Garikano, A.) (Gazt.)
Un cane davvero speciale. (Feltrinelli, 2000: itz. Piumini, M.) (It.)

– *Bambuloren istorio bambulotarrak: krisia:*

- Las bambulísticas historias de Bambulo: la crisis.* (Alfaguara, 1998: itz. Atxaga, B.; Garikano, A.) (Gazt.)

– *Bambuloren istorio bambulotarrak: Ternuako penak:*

- Las bambulísticas historias de Bambulo: amigos que cuentan.* (Alfaguara, 1999: itz. Atxaga, B.; Garikano, A.) (Gazt.)

– *Xola eta Angelito:*

- La Xola i l'Angelet.* (Cruïlla, 2005: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)
Shola y Angeliño. (SM, 2006: itz. Atxaga, B.; Garikano, A.) (Gazt.)
Shola des villes, Shola des Champs. (La Joie de Lire, 2007: itz. Gabastou, A.) (Fr.)

– *Nire jaioterriko jendea:*

- La gente de mi pueblo.* (Algar, 2005: itz. Atxaga, B.) (Gazt.)

– *Guillermoren azalpena = Guillermo's tale.* (Baigorri, 2005: itz. Draper, D.)
(Eus.-Ing.)

Obra lagina

Gazteentzat idatzitako nobela honetako protagonistak, Mo behiak, bere jaiotzaren berri ematen digu testu honetan. Oraindik fantasia ikutua badu, behi bat narratzailea izaki, baina idazleak leku eta denbora zehatz batean kokatzen gaitu. Oso ondo ikusten da baita ere, Atxagak tradizioarekin egiten duen jokua zenbait esaera bere erara paratuz, umore finaren bidetik.



Behi euskaldun baten memoriak.
Pamiela, 1991: 31-32. orr.

Bigarren Kapitulu

*Zergatik ez naizen nire jaiotetxe Balantzategira
itzultzten. Pauline Bernardettek esaten dizkidanak.
Nire lehen kolpea, jaiotza.*

Jaiotzekoa izango nintzen noski, eta azkenean jaio egin nintzen Euskal Herriko baso batean 1936ko gerra bukatu eta handik gutxira. Basoa Balantzategi izeneko etxearen terrenoetako zenez, bertako ikuiluan egin zidaten toki, eta erabakita gelditu zen hartara nire mundu honetako txokoa, txokoa edo aberria: balantzategiarra izango nintzen, hantxe pasako nuen nire bizitzaren aurreneko aldia, aldirik garrantzitsuena; bertan geldituko zitzaidan bihotza itsatsita. Nahiz zaharra

*izan, nahiz etxe hartatik urruti hil behar gaur edo bihar, nire bihotzak Balantzategi maiterako bidea bilatzen du beti, eta auskalo, agian joan ere joaten da haraino ni lo gelditzen naizen bakoitzean. Esaera zahar-
rrak dioen bezala:*

“Oriko txoriak Orira nahi”

Ni ez naiz izango ez xoxo, ez birigarro eta ez inolako txori, zerbait haundiagoa eta pisuagoa ere banaiz-eta, baina halere ez diot gezurrik nire bihotza eta haiena alderik gabekoak direla esatean. Txori bihotzekoa naiz ni, bihotzogatik balitz, oraintxe bertan aterako nituzke hegoak zorrotatik eta hasiko nintzateke hegan, eta desbideratu gabe joko nuke nire haurtzaroko basora. Iritsi hara, lurreratu nire bostehun kiloak elur mataza bat bezain xuabe, eta oihu erdiragarria aterako litzateke nire extarritik:

—Biba Balantzategi!

Ordea hegogabea naiz eta ezin dut gorputzik mugitu ezpada lurren gainean lau hankak ondo jarri ondoren, eta orduan ere nahiko nekez, zeren onenak emanda bainago. Hain zuzen ere, eta txori kontuak alde batera utzita, horrexegatik ez naiz itzultzen Balantzategira, daukadan sasoi kaxkarragatik; sasoirik banu, ez nuke hego beharrik izango, bihar bertan aterako nintzateke bidera. Eta, pentsatzen jarrita, sasoirik gabe ere abiatuko nintzateke baldin eta zenbat denbora gelditzen zaidan jakingo banu. Bi urte badauzkadala esango balidate, kasu, nire kalkuloak egin, neurtu indarrak ondo, eta ahalegina egingo nuke. Esaera zaharrek dioen bezala:

“Behi zaharra astiro abiatu eta Txinara ailegatu”

Bai, ailegatu egingo nintzateke Balantzategira aipatutako bi urte horiek baneuzka. Daukadan ala ez, hori da ez dakidana. Apika izango nituzke, apika ez. Jakin egin behar.



ENKARNI GENUA

(Donostia, 1942)

Soslai bio-bibliografikoa

Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatua, txotxongilolari moduan garatu du bere ibilbide profesionala Enkarni Genuak. Irakaskuntza munduan ere lan egin du, Larramendi ikastetxean eta Donostiako Elizbarrutiko Irakasleen Eskolan irakasle.

1971n, Manolo Gomezekin, Txotxongillo Taldea sortu zuen, eta harrezkero emanaldi ugari eskaini dituzte Euskal Herriko hiri eta herri guztietan, baita Euskal Herritik kanpoko leku askotan ere. 1982an, Tolosako CITeko (Centro de Iniciativas de Tolosa) kide batzuekin batera Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia abian jarri zuten, gaur egun mundu osoko txotxongilolarien artean ezaguna dena. Jaialdiarekin izandako lankidetzak ez du etenik izan urte hauetan guztietan, eta egun, TOPIC (Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan) proiektuan ere partaide dira.

Haurrentzat antzezlan ugari argitaratu ditu Genuak, batzuetan euskal mitologiako pertsonaietan oinarrituta, *Erreka Mari*, *Euskal Herriko azken lamia!* (Erein, 1979) bere obra entzutetsuenaren kasuan bezala; edo berezko sormen lanak *Altxor bat patrikan* (Erein, 1988), *Elurrezko panpina* (Erein, 2005), edo *Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?* (Erein, 2006). Hizkuntza xaloa erabiltzen du beti egileak, eta sarri zuzentzen zaie ikusleei bigarren pertsonan, hurbiltasuna eta parte-hartzea bultzatuz.

Lan hauetan, maiz txertatzen dira poesia laburrak, emanaldietan kantatuak izateko bere musika ere badutenak. Horrela, Txotxongillo Taldeak beren antzezlanak eta kantuak jasotzen dituzten hainbat soinu grabaketa ere argitaratu ditu.

Azpimarratzekoa da Enkarni Genua eta Jesus Lucas-ek *Ipurbeltz* komikiaren *Ale Bereziatarako* egin zituzten lanak 80ko eta 90eko hamarkadetan. Lan hauetan, Genuak txotxongiloetarako prestatutako gidoiak Jesus Lucas irudigileak komiki eran ematen zituen. Lan-kidetza horretatik sortu ziren aipatutako *Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamia!* (Erein, 1979); *Zezena plazan* (Erein, 1981); *Printze Txikia* –Saint-Exupéryren lanaren moldaketa– (Erein, 1985) eta abar, 11 izenburu osatu arte. Euskal haur literaturan bi hutsune bete zituzten: komikiarena eta antzerki gidoiarena.

Genuak narratiba ere landu du, *Eman eta gero* (Erein, 1996) lanarekin hasita, edota *Mahatsak eta neskatilak ondu zireneko uda* (Erein, 2010) liburuarekin. Narrazio hauetan, haurraren eguneroko bizimoduan sortzen diren gatazka arruntak nabarmentzen dira, batzuetan fantasian txertatuak; eta idazleak konponbidea maitasunaren eta sen onaren bidetik proposatzen du beti. Narratiban ari dela ere, sarri erabiltzen du elkarrizketaren baliabidea istorioak aurrera eramateko.

Lan literarioez aparte, idazleak zenbait testu liburu argitaratu ditu dramatizazioa eskolan lantzeko proposamenekin, esaterako, *Dramatizazioa: bene-benetan... katuak berbetan* (Elkar; Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, 1992-1994); eta baita txotxongiloei buruzko saiakerak ere, hara nola, *Altxor bat esku artean: txotxongiloak* (Erein, 2009).

Idazlearen webgune ofiziala: www.txotxongillo.com

Sariak

- *Erreka Mari: Euskal Herriko azken lamia!* Ercilla Saria. Bilboko Udala. (1980)
- *Gerta daiteke.* Nafarroako Antzerki Eskola. Iruñeako Udala: umeentzako antzerki testuen lehiaketa. (1997)
- Donostia Antzerki Feriak. Victoria Eugenia Saria: Txotxongillo Taldearen ibilbideari (2007)

Bibliografia

Antzerkigintza

- Erreka Mari: Euskal Herriko azken lamia!* Erein, 1979
Zezena Plazan. Erein, 1981
Gizona, sugea eta azeria. Erein, 1985
Printze txikia. Erein, 1985
Ipurtargi: Hondarrezko gaztelua. Erein, 1986
Ipurtargi: Txori txiki polit bat. Erein, 1986
Altxor bat patrikan. Erein, 1988
Ipurtargi: Azken eta Putz xagutxoak. Erein, 1989
Ipurtargi: Udazkeneko haizea. Erein, 1989
Itsasminez. Erein, 1990
Herensugea. Erein, 1993
Galtzagorriak. Erein, 1995
Elurrezko panpina. Erein, 2005
Katu guztiak ez dira gaiztoak. Erein, 2005
Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona? Erein, 2006

Narratiba

- Sar dadila kalabazan (8 diska-16 ipuin).* IZ disketxea, 1985-1989
Eman eta gero. Erein, 1996
Ku-ku... ku-ku... aitonaren erlojua. Erein, 1998
Munstroak eta lagunak. Erein, 2001
Zatoz lehenbailehen! Erein, 2004
Hitzen lapurra. Erein, 2007
Mahatsak eta neskatilak ondu zireneko uda. Erein, 2010

Testu liburuak eta saiakera

- Txotxongiloa eskolan.* Erein, 1982
Txotxongillo. Erein, 1983
Zatoz!: Tolosara txotxongiloak ezagutzera. Tolosako Udala CIT. Kutxa Fundazioa, 1993
Dramatizazioa 1-6: Bene benetan... katua berbetan (6 liburu). Elkar, 1992-1994
Kalean gora, kalean behera (2 liburu). Elkar, 1996
Orain... gure txanda! Tolosako Udala CIT. Kutxa Fundazioa, 1997
Zabaldu oihala! Erein, 2001

33 + 3 urte kontu kontari. Erein, 2007

Altxor bat esku artean: txotxongiloak. Erein, 2009

Itzulpenak

– *Erreka Mari: Euskal Herriko azken lamia!*

Obras para títeres de Enkarni Genua: Erreka Mari, la última lamiña; Iputargui, el gusano de Luz; Chócala! la historia de Marikrís. (Teatro Arbolé, 1999: itz. Genua, E.) (Gazt.)

– *Qui vulgi jugar, que aixequi la ma (1 eta 2)* (Enciclopèdia Catalana, 1993: itz. Banqué, A.) (Kat.)

– *Zatoz! Tolosara txotxongiloak ezagutzera:*

¡Ven! a Tolosa a conocer las marionetas. (Centro de Iniciativas de Tolosa, 1993: itz. Genua, E.) (Gazt.)

– *Altxor bat esku artean: txotxongiloak:*


Un tesoro en nuestras manos: los títeres. (Erein, 2009: itz. Genua, E.) (Gazt.)

Obra lagina

Lan hau 1978an antzeztu zen lehen aldiz, eta 1979an, Jesús Lucasen irudiekin, komiki eran argitaratu zuen Erein argitaletxeak, *Ipurbeltzen Ale Berezien* saila irekiz. Jesús Lucasek sortutako irudia azkeneko 35 urteetan oso ezaguna izan da haur euskaldunen artean, Txotxongillo Taldearen ikur bihurtu arte.

Gidoia *Antzerti* aldizkarian argitara eman zen 1983an, eta handik jaso dugu lagin hau.

Haurrekiko hurbiltasuna bilatuz, Genuak hizkuntza xaloa erabiltzen du, eta kantuek tartekatzen ditu antzezlan honetan. Euskal mitologiako Erreka Mari lamia protagonista bezala hartuta mezu ekologiko bat zabaltzen du. Lamia bizi den erreka zikinkeriaz betetzen dute, neska ia itotzeraino, auzoko bi atso gaizki esalek. Baina ez da zaborra Genuak salatzen duen gaiztakeria bakarra, inbidia eta gaizki esatea ere aipatzen baitira antzezlanean mundu honetako gaitz moduan.



Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamia.

Antzerti: antzerki zabalkunderako aldizkaria. 60. alea (1983ko uztaila): 35-37. orr.

Kaixo lagunok!

Orain dela urte asko eta asko, hainbeste eta hainbeste noiz izan zen jakitea ere oso zaila da, Euskal Herrian laminak bizi omen ziren...

Erreketan bizi omen ziren, eta gauean ilargiaren argitan bere urrezko orraziarekin ileak orrazten zituzten bitartean, kantatu egiten omen zuten.

Oso politak omen ziren, bainan ez zu bezalakoak Edurne, ez zu bezain politak ere Ainhoa... Ez dakit nola esan!... Desberdinak ziren!... Oinak ere, ez zituzten guk bezalakoak... Herrriko jendeak esaten zuen bezala, “ez ziren gure modukoak”...!

Eta noski!... Hori nolabait ordaindu egin behar da!... Eta pixkanaka, pixkanaka, laminak, hainbeste zikinkeria, inbidia, eta marmarrekin ezkutatu egin ziren...


Baina ez larritu!... Denak ez!... Bat gelditzen zaigu eta bere historia kontatzera gatoz...

Hona hemen ba, Erreka Mariren historia. Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamina!...

(MUSIKA)

Hasi baino lehen ipuin honetako pertsonaiak presentatuko dizki-zuet. Lehendabizi Martin, Martin artzaina da ta egunero bere ardiekin mendira joaten da. (ARDIAREN HOTSA, TXINTXARRIAK ETA ABAR...).

- MARTIN *Fiuuuuuuuu!... Benga!... hi txuri... Azkar!...*
- ENKARNI *Martinen herrian jende asko bizi da, noski!... Baina batez ere, bere bizilagunak ezagutuko dituzue: Agustina eta Kattalin.*
(BIZILAGUNAREN HOTSA...)
Nahiko berritsuak dira eta pixka bat... Tira, tira, laster konturatuko zarete...
Eta azkenean, Erreka Mari...
(ERREKA MARIREN KANTA)
Erreka Mari errekan dago... abesten.
(ERREKA MARIREN KANTA)
Eta zuek ere bai lagunok... Bai, bai, zuek ere parte hartuko duzue ipuin honetan... Prest al zaudete?...
Aurrera ba!
(ARDI HOTSA)
- MARTIN *Bengaaaa!!! Fiiuuuu!!!! Azkar!... Beltzaaaa! Txuri!! Honera... Honera!!! Abiatu gara!... Ez pentsa ez, lan hau nekagarria ez denik!... Ufff!... Eta orain, zuek larratzera eta nik... bitartean kuluxka bat egingo dut!! Ahhhh!... Lasaitasun honekin bai ederki egingo dudala lo!*
(ERREKA MARIREN KANTA)
- MARTIN *Kontxo!... Zer edo zer entzun dudala esango nuke!... Edo beharbada ametsetan ote nintzen?... Dena dela, hemen inor ez dabil... Ardiak besterik ez... Tira, tira, tira...*
(ERREKA MARIREN KANTA)
- MARTIN *Orain bai, orain bai, orain ziur nago norbaitek abestu duela... Ez zarete zuek izango ezta? ... Ummmmmm*



JUAN KRUZ IGERABIDE

(Aduna, 1956)

Soslai bio-bibliografikoa

Irakasle ikasketak egin, eta lanbide horretan jardun zuen zenbait urtetan Juan Kruz Igerabidek. Ondoren, Euskal Filologia ikasi eta doktoretza bukatuta, EHUko irakasle ere izan zen. Gaur egun, EHUko Euskara Zerbitzuan lanean dihardu. 2003tik euskaltzain urgazlea da.

Literatura arloan garatu du bere ikerketa lana, eta emaitzen artean azpimarratu daiteke *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura* (Erein, 1993); liburu honetan ahozko tradizioaren alorretik aztertzen da haur literatura, batik bat amandre ipuinak.

Sorkuntzaren alorrean, berriz, helduentzako hainbat lan egin baditu ere, bai poesia, bai narratiba, edota aforismoak jorratzen, emaitza oparoena haur eta gazte literaturan eman du.

Gazteentzat, eleberria landu du batik bat, abentura, historia eta gai sozialak aipatuz, hala nola *Abraham* (Erein, 1988), edota *Misterioa argitu arte* (Elkar, 2010). Baina poesia lan batzuk ere baditu adin tarte honi zuzenduak, adibidez *Ilargia expainetan* (Erein, 2006), non *Begi-niniaren poemak* (Erein, 1992) liburuaren haritik jarraitzen duen, batez ere forma aldetik, baina gai intimistagoak landuz, amodio kontuak aipatuz, eta nerabezaroan murgiltzen ari denari bizitzaren berri emanez.

Ezin uka daiteke, hala ere, bere idazlan gehienak haurrei zuzenduak daudela, eta prosari helduta, idatzitako ipuin eta eleberri guz-

tien artean, bi sail nabarmendu behar dira: batetik, *Jonasen ipuinak* Aizkorri argitaletxeak 2010ean liburuki bakarrean argitara emanak; eta, bestetik, *Grigor eta erlearen ipuinak*, Alberdaniak 1993 eta 2007a bitartean argitaratutako bost aleak.

1998 eta 2007a bitartean Aizkorrik banaka argitaratutako sei ipuinek osatzen dute *Jonasen saila*. Argitaratutako lehenengoak, *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Aizkorri, 1998) Euskadi Saria jaso zuen haur eta gazte literatura arloan. Bertan, Igerabidek Jonasen abenturatxo bat kontatzen digu: ama dendara jaitsi da erosketa txiki bat egitera, Jonas etxean bakarrik utzita. Haurra beldur da, eta irudimena azkar jartzen du martxan, dardarka ari den hozkailua ere beldur dela pentsatuta. Esaldi laburretan, behar diren hitzetan, idazleak maisuki adierazten ditu Jonasen barne sentipenak, bere gogoeten garapena, eta elkarrizketetan haur hizkuntza oso ondo jasotzen du.

Beste bost ipuinetan, Jonas haziz doa, eta bere estualdiak ere berekin garatzen dira; betiere haurraren barne mundua eta sentimenduak garbi islatuz, hitzez hitz neurtutako prosa xalo eta zainduan.

Grigor eta erlearen ipuinen kasuan protagonista koskorragoa da. Gainera, sailean zehar, Grigorrek ere badu garapen bat haurtzarotik nerabazarora, eta bere barne mundua ezagutzeko aukera dugu. Hasieran, oraindik fantasiaren mundua onartzen du bere egunerokotasunean, eta erlearekin zein beste animaliekin errealitatearen planotik hitz egiten du. Poliki-poliki, erleak protagonismoa galtzen du, nahiz eta beti berarekin egon, eta hezur-haragizko lagunek indar handiagoa hartzen dute, harik eta maitasunaren lehen aieruak ikusten ditugun arte.

Bestalde Igerabidek badu konpromiso bat tradizioa berreskuratzearekin, beste idazle askok bezala, eta horren adibide dira *Zaku bete hauts* (Aizkorri, 2007), euskal tradiziozko maitagarri ipuinen moldaketa, edota *Amilami* (Elkar, 2008), euskal mitologiaren hainbat pertsonaiaren berrikuspina, gaur egun gertatzen den istorio batean txertatuta. Kasu honetan, idazleak oso hizkuntza poetiko eta malenkoniatsua darabil, Amilami lamia gaztearen ibilbidea kontatzeko, eta nabarmena da Elena Odriozola ilustratzailearen lana idazleak proposatzen duen imaginarioa islatzeko orduan.

Hitz neurtuetan ere egin du horrelako ahaleginik egileak *Mattin Parrat: kanta zaharrekin jolasean* (Susaeta, 2000) eta *Kantak eta olerkiak umeentzat* (Susaeta, 2011) liburuetan, non tradizioetik abiatuz, bertsiio berriak eskaintzen dizkigun hizkuntzarekin jolasteko.

Esan daiteke bereziki sorkuntzazko poesia lanek eman diotela merezitako izena, egungo euskal haur eta gazte literaturan. Arestian aipatu denez, 1992an idatzi zuen egileak haurrentzako lehenengo poesia liburua, *Begi-niniaren poemak* (Erein). Bertan, haikuen ildotik, poesia laburrak, iradokitzaileak eskaintzen dizkigu. Bakoitzak irudi bat proposatzen du, eta esaten denarekin batera, esaten ez denak ere osatzen du irudi hori.

Egun osorako poemak (Pamiela, 1993) lanean beste eredu batzuek baliatzen da Igerabide. Kasu honetan irudi iradokitzaileek ere badute bere lekua, baina poesia luzeagoak dira. Egileak soinuekin jolasten du, eta errepikapenak erabiltzen ditu erritmoa lortzeko. Gainera, badirudi tradizioaren iturritik edan duela, formaren eta gaien aldetik: ilargia, eguzkia, natura...

Haur korapiloak: haizea lotzen (Pamiela, 1997) lanarekin, idazleak bide berriak jorratzen ditu. Alde batetik, gaietan, pertsonen barne "korapiloak" aienatzeko formulak proposatzen baititu; eta, bestetik, formetan, euskal tradizioaren iturritik edanda, edota adibidez, metrika arrotz bat bereganatuta, Edward Lear-en *limerick* sonatuen bidetik. *Limericken* sorta honetan, jatorrizko umoreari eta zentzugabekeriarako joerari eutsi die, baina gure gertuko geografia eta protagonistei lotuta.

Urte berean, Igerabidek *Gure poesia* (Anaya Haritza, 1997) apaildu zuen, XX. mendeko zortzi euskal poeta ospetsuren poemabilduma, haurrentzat egokitua.

Botoi bat bezala (Anaya Haritza, 1999) liburuan berriz ere haikuari lotzen zaio, hizkuntza xaloki baliatuz, oso irudi iradokitzaileak sortuz. Nabarmena da Elena Odriozolaren ilustrazioek nola islatzen dituzten poesien irudi horiek, orrialdez orrialde egitura orekatua lortuz.

Igerabidek *Txori kantariak poeta hegalariak* (Elkar, 2003) eta *Zaldiko-maldikoan* (Aizkorri, 2003) lan kolektiboetan ere argitaratu ditu poemak.

Azkenengo garaietan, berriz ere narratibari heldu dio Igerabidek *Irribarrea zabaltzeko ipuinak* (Elkar, 2011) edo *Serio demonio* (Elkar, 2012) lanekin. Bietan ere, umorea jorratzen du Jokin Mitxelenaren ilustrazioen laguntza paregabeaz.

Albumari ere hurbildu nahi izan zaio idazlea, Lorena Martinez ilustratzailearekin egindako *Tanto baten istorioa* (Tarttalo, 2011) lanean. Beharrezko hitzak bakarrik utzita, testu liriko bat proposatzen digu, irudiekin dantzan ari dena, bizitzaren sorreraren misterioa haurrei hurbiltzeko ahalegin honetan.

Sariak

- *Gau, gau, gau.* (Karlos Linazasorekin batera) Baporea Saria. SM argitaletxea (1997)
- *Bota ura!* Edebé sarian finalista. Edebé argitaletxea (1997)
- *Jonas eta hozkailu beldurtia.* Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza (1999)
- *Paularen zazpi gauak.* (Patxi Zubizarretarekin batera) White Raven (Zozo zuria) zerrenda. Municheko Nazioarteko Haur eta Gazte Liburutegia (2003)
- *K herrialdea.* Baporea Saria. SM argitaletxea (2006)

Bibliografia

- Begi-niniaren poemak.* Erein, 1992
Tilin-talan. Elkar, 1992
Egun osorako poemak eta beste. Pamiela, 1993
Egunez parke batean: Grigor eta erlearen ipuinak. Alberdania, 1993
Txokolatea basoan. Elkar, 1993
Gauetz zoo batean: Grigor eta erlearen ipuinak. Pamiela, 1994
Sarean leiho. Alberdania, 1994
Denboraldi bat ospitalean: Grigor eta erlearen ipuinak. Pamiela, 1995
Pikoak. Elkar, 1995
Ametsontzi. Elkar, 1996
Neskatxa telepatikoa eta pirata-istorio bat. Giltza, 1996
Oporraldi bat baserrian: Grigor eta erlearen ipuinak. Alberdania, 1996
Gure poesia: antologia. Anaya Haritza, 1997

- Andretxo bizardunaren uhartea: kaset batean grabaturiko istorioa.* Giltza, 1997
- Atea Kox-kox.* Elkarlanean, 1997
- Bota ura! nire terrazatik.* Giltza, 1997
- Haur korapiloak: haizea lotzen.* Pamiela, 1997
- Abraham.* Erein, 1998
- Jonas eta hozkailu beldurtia.* Aizkorri, 1998
- Botoi bat bezala = Como un botón.* Anaya Haritza, 1999
- Hamabi galdera pianoari.* Alberdania, 1999
- Helena eta arrastiria.* Elkarlanean, 1999
- Jonasen pena.* Aizkorri, 1999
- Leo Ferguson.* Erein, 1999
- Ttolo maitea.* Eusko Jaurlaritza, 1999
- Alima polita.* Alberdania, 2000
- Begi argi horiek.* Aizkorri, 2000
- Dantzariño haserre.* Elkarlanean, 2000
- Durango Durango.* Elkarlanean, 2000
- Maisu berria: Grigor eta erlearen ipuinak.* Alberdania, 2000
- Mattin Parrat: kanta zaharrekin jolasean,* Susaeta, 2000
- Ondo joan.* Elkarlanean, 2000
- Sagutxo ameslaria.* Giltza, 2000
- Daratulua.* Descleé de Brouwer, 2001
- Eskola ekologikoa.* Erein, 2001
- Izar bat agertu da.* Igela, 2001
- Jonasen iratzargailua.* Aizkorri, 2001
- Mintzo naiz isilik... igarkizunekin jolasean.* Elkarlanean, 2001
- Platerona.* Baigorri, 2001
- Hitz magikoen bila.* Elkar, 2002
- Jonas larri.* Aizkorri, 2002
- Bosniara nahi.* Aizkorri, 2003
- Hiru ahizpa.* Erein, 2003
- Zaldiko-maldikoan.* Aizkorri, 2003
- Txori kantariak, poeta hegalaria.* Elkar, 2003
- Izeba Klariona = Auntie Klariona.* Baigorri, 2003
- Okili-kili.* Aizkorri, 2003
- Txano gorritxo eta amona basatia.* Giltza, 2003
- Ziri magikoa lapurtu ziotenekoa.* Elkar, 2003
- Jonasek arazo potolo bat du.* Aizkorri, 2004

Lau izar. Aiztondo, 2004
Munduko ibaien poemak. Elkar, 2004
Sugegorria. Elkar, 2004
Txirrina. Alfaguara Zubia, 2004
Zirkus-zirkus. Elkar, 2004
Dedi mago ospetsua. Elkar, 2005
Gorputz osorako poemak. Aizkorri, 2005
Hosto gorri, hosto berde = Hoja roja, hoja verde = Feuille rouge, feuille verte.
 Atenea, 2005
Joxe Panpin jostailu saltzaile fin. Elkar, 2005
Koxo-koxoa! Erein, 2005
Lore-hautsa = Pollen. Baigorri, 2005
Printze txiki-txikiaren itzulera. Pamiela, 2005
Ilargia ezpainetan. Erein, 2006
Korri, Sebastian, korri! Erein, 2006
Pipitaki. Aizkorri, 2006
Adio, Jonas. Aizkorri, 2007
Bagdadeko aurpegiak. Erein, 2007
K herrialdea. SM, 2007
Olentzeroren malutak. Elkar, 2007
Sudurretik txintxilika. Giltza, 2007
Zaku bete hauts: Euskal Herriko maitagarri-ipuinak. Aizkorri, 2007
Amilami: laminen istorioak. Elkar, 2008
Munia ohe azpian lo. Erein, 2008
Antso Lizarra. Aizkorri, 2009
Printzesa begi-zulo. Elkar, 2009
Haizearen tunela. Giltza, 2009
Misterioa argitu arte. Elkar, 2010
Iribarrea zabaltzeko ipuinak. Elkar, 2011
Kantak eta olerkiak umeentzat. Susaeta, 2011
Tanta baten istorioa. Ttartalo, 2011
Txori txoroa. Alberdania, 2011
Serio demonio. Elkar, 2012
Motoa. Alberdania, 2012

Itzulpenak

– *Begi-niniaren poemak:*

- Poemas para la pupila.* (Hiperión, 1994: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Ametzontzi:*
Doña Soñadora. (La Galera, 1996: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
Doña Soñadora. (La Galera, 1996: itz. Villalaín, D.) (Gal.)
 - *Neskatxa telepatikoa eta pirata-istorio bat:*
La niña telepática y una historia de piratas. (Edebé, 1996: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Bota ura! nire terrazatik:*
¡Agua val desde mi terraza. (Edebé, 1997: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Jonas eta hozkailu beldurtia:*
Jonás y el frigorífico miedoso. (Everest, 1998: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Jonasen pena:*
La pena de Jonás. (Everest, 2000: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Sagutxo ameslaria:*
La ratita Miracielos. (Edebé, 2000: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Ttolo maitea:*
Querido Tolo. (Macmillan, 2007: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Hamabi galdera pianoari:*
Doce preguntas a un piano. (Edebé, 2006: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Jonasen iratzargailua:*
El despertador de Jonás. (Everest, 2001: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Daratulua:*
El taladro. (Descleé de Brouwer, 2001: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
La broca. (Descleé de Brouwer, 2001: itz. Olano, A.; Casasús, E.) (Kat.)
 - *Mintzo naiz ixilik:*
A tus ojos mi voz: adivinanzas. (La Galera, 2004: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Jonas larri:*
Jonás en apuros. (Everest, 2003: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Egun osorako poemak eta beste:*
Poemas para las horas y los minutos. (Edelvives, 2003: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
 - *Txano gorritxo eta amona basatia:*
Caperucita y la abuela feroz. (Edebé, 2003: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)

- *Oikili-kili:*
Pico Pic. (Everest, 2003: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Bosniara nahi:*
Volver a Bosnia. (Everest, 2005: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Jonasek arazo potolo bat du:*
Jonás tiene un problema muy gordo. (Everest, 2004: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Munduko ibaien poemak:*
Poemas para los ríos del mundo. (Hiperión, 2004: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Txirrina:*
Suena el timbre. (Alfaguara, 2005: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Hosto gorri, hosto berde = Hoja roja, hoja verde = Feuille rouge, feuille verte.* (Atenea, 2005: itz. Igerabide; J.K.; Hargous Cerezo, H.) (Gazt.-Fr.)
- *Koxo-koxoa:*
¡Qué ica! (Algar, 2005: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
¡Que ica! (Xerais, 2005: itz. Chao Castro, I.) (Gal.)
Que bona! (Bromera, 2005: itz. Viu, M.) (Kat.)
Que bona! (Círculo de Lectores, 2005: itz. Viu, M.) (Kat.)
- *Gorputz osorako poemak:*
Al ritmo de las cosquillas. (Pearson, 2009: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
Zumo de granada y un tictac: cuerpoemas II. (Pearson, 2009: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Korri, Sebastian, korri!:*
¡Corre, Sebastián, corre! (Bromera, 2006: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
Corre, Sebastiá, corre! (Bromera, 2006: itz. Servicios Lingüísticos Bromera) (Kat.)
- *Adio Jonas:*
¡Adiós, Jonás! (Everest, 2007: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Sudurretik txintxilika:*
A una nariz pegado. (Edebé, 2007: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Munia ohe azpian lo:*
Munia duerme bajo la manta. (Algar, 2008: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
Munia dorme baixo a manta. (Xerais, 2008: itz. Fernández, P.) (Gal.)
- *Bagdadeko aurpegiak:*

- Rostros sobre Bagdad.* (Algar, 2008: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Haizearen tunela:*
El túnel del viento. (Edebé, 2009: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Printzesa begi-zulo:*
La princesa ojerosa. (Macmillan, 2009: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Txori txoraa:*
Pájaro supersónico. (Macmillan, 2012: itz. Igerabide, J.K.) (Gazt.)

Obra Lagina

Igerabide poetaren ahotsa ondo islatzen dute bi lan hauek. Gaiak askotan lotzen zaizkio haurren sentimendu eta penei. Formari dago-kionez, berriz, haikuaren eragina nabarmena da, baina tradiziozko egitura errepikakor eta errimatuek ere badute bere lekua idazlearen lanetan.



Haur korapiloak (Haizea lotzen). Pamiela, 1997:

II. OR.

OINETAN LOKARRI

(Eta bihotzean korapilo)

*Oinetakoak lotu eta askatu
aritu da haur bakartia
arratsalde osoan, isilik.*

*Zaintzen duen neskak
irribarre egin dio, harriturik.*

*Atea jo dute; nor ote?
Haurrak bere lanari utzi dio.*

*Atean amaren aurpegia agertu da.
Haurrak lanari ekin dio berriro;*

*Oraingoan, bihotzeko
korapiloa askatu du.*

21. or.

AZOKARA

(Tristuraren korapiloak askatzeko)

*Azokara, azokara:
erosiko dut itsas usaina
eta belardien mingaina.*

*Azokara, azokara:
erosiko dut ilargiaren zotina
eta izarren kriskitina.*

*Azokara, azokara:
erosiko dut errekaaren antosina
eta mendiaren lepo fina.*

Azokara, azokara.



Botoi bat bezala: Como un botón.
Il. Elena Odriozola. Anaya Haritz
(Edizio elebiduna), 1999:

8. or.

Botoi bat bezala

*Botoizulotik botoia bezala
jaio nintzen negarrez:
Ilargia irribarrez.*

Como un botón

*Nací como un botón
que asoma por el ojal:
Sonrisa lunar.*

56. or.

Pozik

*Haurra pozik:
Loreak jaiotzen zaizkio
poltsikotik*

Contento

*Niño saltarín:
De sus bolsillos
nacen flores sin fin.*

48. or.

Paseatzen

*Hor doaz makila
eta aitona
lurreko istorio bila.*

Paseo

*Ahí van el bastón
y el abuelo
charlando con el suelo.*

68. or.

Aitonak

*Irratia piztu:
Denboraren hotsa
itzali nahi du.*

El abuelo

*Pone la radio
para no oír
el paso del tiempo.*

60. or.

*Putzuan neskato baten errainua
eta txakur bat ura edaten*

*Maindire bustian
neskato bat;
hari sudurra miazkatzen
txakurtxo bat.*

*Niña reflejada en un charco
donde bebe un perrito*

*Niña en el húmedo tapiz:
Un perrito
le sorbe la nariz.*

66. or.

*Haur batek bazterrean utzi du bizikleta
lagunekin jolastera joateko*

*Bizikleta
espaloi ertzean
burumakur, zain.*

*Un niño abandona su bici
para jugar con unos amigos*

*La bicicleta
sobre la acera,
cabizbaja, espera.*

Baina Igerabideren ahots narratiboa ere zehatza da haurren barne mundua islatzeko orduan. Jonasen abenturek haur orok eguneroko bizi dituen beldur eta emozioak ezin hobeto azaltzen dizkigute, egoera arruntetatik abiatuta, Jonas sailaren bigarren ataleko pasarte gogoangarri honetan bezala.



Jonasen pena.

Il. Mikel Valverde. Aizkorri, 1999:
12-31. orr.

Jonasi, pozik doanean, bihotza puztu egiten zaio, iuf. Jonasi bihotza puzten zaionean, jauzi egiteko gogo handia jartzen zaio.

Orduan, pixka bat atzera egin indarra hartzeko, iuf, eta jauzi handi bat egiten du, gurasoen eskuetatik airean zintzilik geratuz, zabuka.

–Iufiii!

Batzuetan, abisatu gabe egiten du hori, eta gurasoek balantza egiten dute. Horrek barregura handia ematen dio Jonasi, eta barre egiten du. Gurasoei, ordea, ez die batere barregararik ematen.

Orain Jonas oso pozik doa. Pixka bat atzera egin indarra hartzeko, eta:

–Iufiii!

Jauzi handi bat egin du, hankak oso gora jasoz. Amak balantza egin du. Aitak ere balantza egin du eta, tamalez, kaleko farola bat jo du buruaz, kanka.

Jonasi barregura handia jarri zaio eta barre egin du, baina berehala isildu da, aita haserre bizian baitago.

Jonasen bihotza hustu eginda pixka bat. Jonasek pena dauka bihotzean. Ez du aita minex eta haserre ikusi nahi.

Ama ere barrez hasi da, baina ez da isildu. Barrez jarraitzen du. Aita oso haserre dago. Amari errieta egin dio. Tximua deitu dio. Orain ama ez da barrez ari. Orain bera ere haserre dago. Jonasen bihotza gehiago hustu da. Pena handia dauka. Ez ditu aita eta ama

haserre ikusi nahi. Gurasoak elkarri errietaka ari dira, ahotsa jaso gabe, kaleko jendeak entzun ez dezan: eta zuk, eta nik... eta bai, eta ez... zu bai, zu ere bai...

Jonasek dena entzuten die. Penaz beterik, farolaren kontra makurtu eta negarrez hasi da isil-isilik. Bihotza erabat uzkurturik dauka Jonasek.

Jonasen gurasoak konturatu egin dira. Errieta egiteari utzi, eta haurrarengana makurtu dira. Amak sudurra laztantzen dio; aitak, berriz, belarriak. Jonasek negar egiteari utzi dio, eta badoaz berriro hirurak.

Orain Jonas isil-isilik doa, gurasoen eskutik. Pausoa ematea ere kosta egiten zaio, bihotza txiki-txikia baitauka. Bihotza txiki-txikia daukanean, Jonasen gorputzak ez du indarrik, ez jauzi egiteko gogorik.

«Pena bihotzaren zukua da, eta gazi-gazia da!», pentsatu du Jonasek, masailean behera datorkion malkoa xurgatuz.

Ibili, ibili eta ibili, isil-isilik, semaforo baten aurrean gelditu dira. Gorria dago. Argi berdea. Aurrera egin dute. Orduan, amak esan du:

–Barkatu.

–Barkatua dago –erantzun dio aitak–. Barka zeuk ere.

–Barkatua dago –esan du amak.

–Egia esan, kaskarreko barregarria izan da –esan du aitak, eta barre egin du.

–Bai. Kaskarreko barregarria izan da –esan du amak, eta hark ere barre egin du.

Jonasen bihotza bat-batean puztu da. Berak ere barre egin du. Jonasen bihotza erabat puztu da, iuf. Jauzi egiteko gogo handia jarri zaio, iuf.



MARIASUN LANDA

(Errenteria, 1949)

Soslai bio-bibliografikoa

Gizarte-laguntzaile ikasketak Donostian egin ondoren, lau urtez bizi izan zen Parisen Mariasun Landa eta han Filosofian lizentziatu zen 1973an. Bertatik itzuli ondoren, euskara ikasteari ekin zion, gaztetatik sentitu zuen beharra asetzeko asmotan.

Zenbait urtez irakasle izan zen, lehenengo Zarauzko ikastolan, eta Lasartekoan geroago. Ondoren, IRALEn irakasleak euskalduntzeko lanetan aritu zen. Egun, Literaturaren Didaktikako irakaslea da Donostiako Unibertsitate Irakasle Eskolan (EHU). Jakiundeko (Euskal Herriko Zientzia, Arte eta Letren Akademia) kide da Literatura arloan.

Hedabide desberdinetan jardun du, batez ere, artikulugintzan, eta, gaur egun, horretan dihardu zenbait aldizkari eta egunkaritan, sarri feminismoaren inguruko hausnarketan. Haur eta gazte literaturan espezializatutako aldizkarietan ere bere obrari buruzko edo sormen lan eta prozesuari buruzko artikulua argitaratu ohi ditu. Nobela autobiografiko bat plazaratu du: *Festa aldameneko gelan* (Erein, 2007).

Bere obra nagusiki haur eta gazte literaturaren esparruan garatu du. Egungo beste idazle euskaldun batzuen antzera, irakasle lanean ari zela, euskarazko material urriak eraginda ekin zion ipuinak idazteari, bere ikasleei irakurgaiak eskaini ahal izateko: horrela sortu zituen *Amets uhinak* (Elkar, 1982) edo *Kaskarintxo* (Elkar, 1982), Gianni Rodari italiarraren arrastoan.

Txan fantasma (Elkar, 1984) lanarekin mugarri bat ezarri zuen Landak euskal haur eta gazte literaturan. Europa Erdialdeko errealismo kritikoaren bidean, gai sozialen gainean jardutera ausartu zen, Karmentxu neskatila umezurtzaren istorioarekin. Komunikazio arazo latzak ditu neskatilak, eta azkenean “arraroen etxean” sartzen dute, bere ingurukoek ez baitakite berekin nola jokatu.

Hurrengo urratsak minimalismora hurbildu zuen Landa, *Iholdi* (Erein, 1988) sailaren lehen alearekin. Bertan, 16 ipuin laburretan Iholdiren ahotan ezagutzen ditugu bere bizitzako pasarte txikiak, hitz justuekin, haurren eguneroko bizitza ezin hobeto islatzen dutenak. Gainera, azpimarratu daiteke ipuin motz hauetan idazleak ondoren bere lanetan jorratuko dituen gaien katalogoa eskaintzen digula: bakardadea, neska-mutilen arteko harremanak, tristura, ezinegona, familia harremanak... eta zer esanik ez, animaliak giza sentimenduen metafora bezala erabiltzearen baliabidea. Obra honekin hasi zuten Landak eta Asun Balzola ilustratzaileak urte askotako lankidetza. Sailaren hurrengo aleek ipuin luzeagoen forma hartu zuten *Izeba txikia* (Erein, 1988), *Alex* (Erein, 1990), *Amona, zure Iholdi* (Erein, 2000) liburuetan, eta, 2005ean *Iholdi Saila* izenarekin, Asun Balzolaren ilustrazio berriekin berrargitaratu ziren guztiak, *Marina* (Erein, 2005) eta *Haginak eta hilobiak* (Erein, 2005) izenburuekin osatuta.

Landak, liburu luzeago eta forma aldetik landuagoak ere idatzi ditu irakurle koskorragoentzat: *Nire eskua zurean* (Erein, 1996), *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean* (Anaya, 1998) edota *Gal-tzerdi suizida* (Elkarlanean, 2001), adibidez.

Krokodiloa ohe azpian (Alberdania, 2002) bikainarekin Espainiako Sari Nazionala irabazi zuen haur eta gazte literaturako kategorian, eta bertan, egoera surrealista batetik abiatuz, Mariasun Landak angustiaz eta gaur egungo gizartean bizi den bakardadeaz fabula bat eraikitzen du, protagonistak ohe azpian aurkitutako krokodiloarekin duen arazoa konpontzen asmatu arte, antzeko arazoa duen lankidearen laguntzaz.

Ipurtargiak paradisuan (Elkar, 2010) obran Adan eta Evaren arteko maitasun istorio bitxia kontatzen du, Landak garrantzitsua baiteritzo Historia Sakratuaren erreferentziak presente izateari, men-debaldeko literatura eta kultura ulertu ahal izateko.

Idazlearen webgune ofiziala: www.mariasunlanda.net

Sariak

- *Txan fantasma*. Lizardi Saria. Zarauzko Udala (1982)
- *Alex*. Euskadi Saria: haur eta gazte literatura. Eusko Jaurlaritza (1991)
- *Iholdi*. IBBYko ohorezko zerrenda (1992)
- *Elefante txori-bihotza*. White Raven (Zozo zuria) zerrenda. Municheko Nazioarteko Haur eta Gazte Liburutegia (2001)
- *Krokodiloa ohe azpian*
 - A.M. Labaien Narrazio Saria. Tolosako Udala. (2002)
 - Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala. Kultura Ministerioa (2003)
 - IBBYko ohorezko zerrenda. (2006)
- Idazlea OEPLik hautagai izendatu zuen IBBYk ematen duen Andersen Sarirako, bere ibilbideagatik. (2008)
- “Dabilen Elea 2011 Saria” euskal letretan egindako ibilbidearengatik. EEE, EIZIE, EIE, Galtzagorri Elkarteak eta APIE-EIEP elkarteek emana.

Bibliografia

Amets uhinak. Elkar, 1981
Kaskarintxo (Joxantonio Ormazabalekin). Elkar, 1982
Elisabete lehoi domatzailea. Elkar, 1983
Joxepi dendaria. Elkar, 1984
Partxela. Elkar, 1984
Txan fantasma. Elkar, 1984
Izar berdea. Elkar, 1985
Aitonaren txalupan. Elkar, 1988
Errusika. Elkar, 1988
Iholdi. Erein, 1988
Izeba txikia. Erein, 1988
Maria eta aterkia. Elkar, 1988
Alex. Erein, 1990
Irma. Elkar, 1990
Kleta bizikleta. Elkar, 1990

Potx. Elkar, 1992
Julieta, Romeo eta saguak. SM, 1994
Nire eskua zurean. Erein, 1995
Ahatetxoa eta sahas negartia. Elkar, 1997
Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean. Anaya-Haritza, 1997
Amona, zure Iholdi. Erein, 2000
Sorgina eta maisua. Elkar, 2000
Elefante txori-bihotza. Anaya Haritza, 2001
Galtzerdi suizida. Elkar, 2001
Krokodiloa ohe azpian. Alberdania, 2002
Marlene eta taxizapata. SM, 2002
Inurri bitxia. Erein, 2004
Marina. Erein, 2005
Haginak eta hilobiak. Erein, 2005
El invierno de la cigarra Vanesa. Macmillan, 2008
Ipurtargiak paradisuan. Elkar, 2010
Maitagarria eta desioa. Elkar, 2012
Marikanta eta inurriak. Erein, 2012

Itzulpenak

– Joxepi dendaria:

La tienda de Pepa. (La Galera, 1984: itz. Landa, M.) (Gazt.)
La botiga de la Pepa. (La Galera, 1984: itz. Serra, A.) (Kat.)
A tenda da Pepa. (Galaxia, 1984: itz. Senin, X.) (Gal.)
To magari tes Pepa. (Synghroni Epohi, 1990: itz. Vrettou, A.) (Grek.)
Stal Pepa: kontadenn. (Ar Releg-Kehuon, 1993: itz. Beg-Rossinyol, G.;
 Emelianoff, G.) (Bret.)
Dyqani i Pepes. (Perfemije, 1994: itz. Mexsi, M.) (Albaniera)

– Txan fantasma:

Chan, el fantasma. (La Galera, 1984: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Txan, el fantasma. (La Galera, 1984: itz. Boada, R.) (Kat.)
Tsan to fantasma: istories apo tin hora ton vaseon. (Synghroni Epohi, 1989:
 itz. Vrettou, A.) (Grek.)
Txan fantasma. (Perfemije, 1994: itz. Mexsi, M.) (Albaniera)
Karmentxu and the little Ghost. (University of Nevada Press, 1996: itz.
 White, L.) (Ing.)
Chan, a pantasma. (Galaxia, 2007: itz. Landa, M.; Torres, C.) (Gal.)

– Izar berdea:

- La estrella verde.* (La Galera, 1985: itz. Landa, M.) (Gazt.)
L'estrella verda. (La Galera, 1985: itz. de la Torre, A.) (Kat.)
A estrela verde. (La Galera, 1985: itz. Senin, X.) (Gal.)
Era estrèla verda. (La Galera, 1985: itz. Vergés, F.) (Aran.)
Ar steredenn wer. (Ar Releg-Kehuon, 1996: itz. Emelianoff, G.) (Bret.)
Izar berdea=The green star. (Baigorri, 2005: itz. Draper, D.) (Eus.-Ing.)
- *Aitonaren txalupan:*
La barca de mi abuelo. (La Galera, 1988: itz. Landa, M.) (Gazt.)
La barca de l'avi. (La Galera, 1988: itz. Lluch, J.) (Kat.)
O avó. (La Galera, 1988: itz. Piñeiro, A.) (Gal.)
Ena barca de pare. (La Galera, 1988: itz. Ané Brito, M.) (Aran.)
- *Errusika:*
Russica. (Cruïlla, 1992: itz. Lienas, G.) (Kat.)
La pulga Rusika. (SM, 1993: itz. Landa, M.) (Gazt.)
The Dancing Flea. (University of Nevada Press, 1996: itz. White, L.) (Ing.)
Tanz, Russika, tanz! (Altberliner, 1997: itz. Zaitani, K.) (Ale.)
Errusika. (2005) (Koreera)
- *Maria eta aterkia:*
María y el paraguas. (La Galera, 1990: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Maria i el paraigua. (La Galera, 1990: itz. Gil Sanchis, O.) (Kat.)
Maria dhe çadra. (Shtepia Botuese, 1993: itz. Meksi, M.) (Albaniera)
- *Iholdi; Izeba txikia; Alex:*
Cuadernos secretos. (Edebé, 1994: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Quaderns secrets. (Edebé, 1994: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)
Iholdi; La petite tante; Alex. (La Joie de Lire, 1996: itz. Etchezaharreta, L.) (Fr.)
Iholdi et autres histories. (La Joie de Lire, 2001: itz. Etchezaharreta, L.) (Fr.)
Tres bichos raros. (SM, 2006: itz. Landa, M.) (Gazt.)
- *Irma:*
Irma. (La Galera, 1990: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Irma. (La Galera, 1990: itz. Lluch, J.) (Kat.)
Irma. (La Galera, 1990: itz. Rodriguez, C.) (Gal.)
- *Kleta bizikleta:*
Una bicicleta en huelga. (Grijalbo Mondadori, 1995: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Una bicicleta en vaga. (Grijalbo Mondadori, 1995: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)

A miña bicicleta testalana. (Tambre, 2004: itz. Chao Castro, I.) (Gal.)
Mi testaruda bicicleta. (Edelvives, 2004: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Quina bicicleta més tossuda. (Baula, 2005: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)

– *Julieta, Romeo eta saguak:*

Julieta, Romeo y los ratones. (SM, 1994: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Julieta, Romeo i els ratolins. (Bromera, 2006: itz. Franco, J.) (Kat.)
Julieta, Romeo eta saguak. (La Librarie Orientale, 2004) (Arab.)

– *Nire eskua zurean:*

A miña man na túa. (Xerais, 1996: itz. Hernández, T.) (Gal.)
Mi mano en la tuya. (Alfaguara, 1998: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Jo, me'n vaig. (Cruilla, 2001: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)

– *Ahatetxoa eta sahats negartia:*

El patito y el sauce llorón. (Algar, 2004: itz. Landa, M.) (Gazt.)
L'anec i el salze. (Bromera, 2004: itz. Crespo, A.) (Kat.)

– *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean:*

Cuando los gatos se sienten tan solos. (Anaya, 1997: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Quan els gats se senten molt sols. (Barcanova, 1998: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)
Cuando os gatos se senten tan sós. (Anaya, 2000: itz. Torres, C.) (Gal.)
Quand els gats se senten tan sols. (Anaya, 2000: itz. Arizmendi, M.; Giménez, A.) (Kat.)

– *Amona zure Iholdi; Marina; Haginak eta hilobiak:*

Los secretos de Iholdi. (SM, 2007: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Els secrets de la Iholdi. (Cruilla, 2006: itz. Munt, A.) (Kat.)
Les secrets d'Iholdi. (La Joie de Lire, 2009: itz. Etchezaharreta, L.) (Fr.)

– *Sorgina eta maisua:*

La bruja y el maestro. (Anaya, 2001: itz. Landa, M.) (Gazt.)
La bruixa i el mestre. (Barcanova, 2001: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)

– *Galtzerdi suizida:*

El calcetín suicida. (Anaya, 2004: itz. Landa, M.) (Gazt.)
El mitjó suicida. (Barcanova, 2004: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)
O carpín suicida. (Xerais, 2004: itz. Chao Castro, I.) (Gal.)

– *Elefante txori-bihotza:*

Elefante corazón de pájaro. (Anaya, 2001: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Un elefant amb cor d'ocell. (Barcanova, 2001: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)

- Elefante corazón de paxaro.* (Xerais, 2001: itz. Gaspar, S.) (Gal.)
- *Krokodiloa ohe azpian:*
Un cocodrilo bajo la cama. (SM, 2004: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Un cocodril sota el llit. (Cruïlla, 2004: itz. Hernàndez, P.J.) (Kat.)
Un crocodilo debaixo da cama. (Galaxia, 2004: itz. Landa, M.; Torres, C.) (Gal.)
Krokodiloa ohe azpian. (Book Seed Publishing, 2004) (Koreera)
Krokodil pod krovatui. (2010) (Errus.)
- *Marlene eta taxizapata:*
Marlene y el taxizapato. (SM, 2002: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Sa'îd wa-"Zînah" wa-l-fî'rân al-gâ'î'a. (Dâr al-Magâñî, 2004) (Arab.)
- *Berri ona = Good news* (Baigorri, 2003: itz. Draper, D.) (Eus.-Ing.)
- *Inurri bitxia:*
Una hormiga original. (Algar, 2004: itz. Landa, M.) (Gazt.)
Una formiga original. (Círculo de Lectores, 2004: itz. Crespo, A.) (Kat.)
Unha formiga orixinal. (Xerais, 2004: itz. Chao Castro, I.) (Gal.)
An original ant = Una hormiga original. (Algar, 2009: itz. Aranda, M.; Gírbés, J.C.) (Ing.-Gazt.)
- *El invierno de la cigarra Vanesa:*
L'hivern de la cigala Vanessa. (Macmillan, 2008: itz. Hernàndez, P.J.) (Kat.)
- *Ipurtargiak paradisuan:*
Lluernes al paradís. (Cruïlla, 2011: itz. Munt, A.) (Kat.)
Luciérnagas en el paraíso. (Edebé, 2012: itz. Landa, M.) (Gazt.)

Obra lagina

Bizimoduz aldatu nahi duen galtzerdi bat da nobela motz honetako protagonista. Munduan barrena ibili, eta abentura arriskutsuak bizi eta gero, galduta dabilen beste galtzerdi baten ondoan maitasuna aurkitzen du.

Oraingoan Landak, animaliak beharrean, objektu arrunt bat hartzen du bizitzaren zentzuaren eta amodioaren bila dabilen gizakiaren metafora moduan. Beste lan batzuetan bezala, protagonista da narra-tzailea, eta lehenengo pertsonan hitz egiten digu, barne sentimenduak eta gogoetak ahalik eta hurbilen adierazteko ahaleginean.



Galtzerdi suizida.

II. Antton Olariaga.

Elkarlanean, 2001: 68-71. orr.

*Hura ni baino pittin bat luzexeagoa zen, baina ni pixka bat zabala-
goa. Hura harizkoa zen, eta artean adabakirik gabea. Ni artilezkoa,
eta oin punta modu harrigarritz konponduta neukan, Kloti andrearen
esku miragarrirei esker. Eta benetako zortea izan genuen, bizitzaren
oparia, maisuak gu biokin korapiloa egitea erabaki baitzuen. Gure
gorputzak bat eginik, arimak batzea besterik ez zen falta. Eta sinets
iezadazue, nahastuta eta aztoratuta nengoen, halakoetan zer egiten
eta zer esaten zen ez nekiela.*

*—Sentitzen dut egoera tragiko honetan ezagutu izana —esan nion,
nire deserosotasuna ezkutatu nahian.*

*—Ez kezkatu, jauna! Lehertuta nago! Uste nuen ez nintzela bizirik
aterako astakirten horien eskuetatik! —erantzun zidan hark, samurki.*

—Pozten naiz zu ezagutzeaz! —erantsi nuen lotsati.

—Ni ere bai —hark ahopean, modu zoragarrian.

—Oso urrutitik al zatoz?

*—Emakume oso garai eta oso lanpetu baten oinetik. Euritarako
botin batzuekin erabiltzen ninduen beti. Zabarra eta despistatua zen,
baina tira, inoiz ez nuen pentsatuko abandonatuko ninduenik, aban-
donatu ninduen bezala... Eta zu?*

*—Nire anaiarekin bizi nintzen, Postako enplegatu zahar baten
oinean. Oso gizon berezia zen, eta oso bakartia... Eta bizimodu berria
hasi nahi izan nuen. Bizi hala hil, alegia.*

Hizketan hasi, eta ezin isildu. Zer zen hura! Nire ibilera guztiak kontatu nizkion, nire esperientziak, nire bizitza: balkoitik botatzearena, geranio harropuzteakoa, ingelesez egiten zuen arratoiarekiko abentura, Kloti andrearekin izandako antzerki abentura, bahitua izateari nion beldurra...

–Gustura egingo nuke zurekin antzerkia! –esan zuen galtzerdieme hark, malenkoniaz.

–Zuk izar papera egingo zenuen, dudarik gabe...


–Tira, exajeratu egiten duzu, ene adiskide...

“Ene adiskide!”

Inoiz entzun gabea nintzen hain hitz goxoak.

–Bai pozik nagoela zu ezagutzeaz!

Zer ari nintzen esaten? Zer gertatzen zitzaidan? Zergatik ahortzen zitzaizkidan ene galtzerdi bizimodu tristean inoiz aurrez imajinatu ez nituen hitzak?



ANJEL LERTXUNDI

(Orio, 1948)

Soslai bio-bibliografikoa

Filosofia eta Letratan lizentziatua Donostia, Erroma eta Valentzian, Anjel Lertxundi irakasle izan zen Zarauzko Salvatore Mitxelena Ikastolan. Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskolan Euskal Literaturaren eta Literatura Unibertsalaren irakasle jardun zuen 1979 eta 1989a bitartean. Euskal Idazleen Elkartearen sortzaileetako bat izanda, bertako lehenengo lehendakaria izan zen. Euskaltzain urgazlea da.

1970ean argitaratu zuen lehen liburua: *Hunik arrats artean* (Lur, 1970) ipuin bilduma, ibilbide oparoa hasiz. Helduentzat idatzitako hainbat nobela eta ipuin bildumaz gainera, artikulugintza, saiakera eta gidoigintza ere landu ditu. Bere lanengatik hainbat sari jaso ditu, besteak beste, 2010eko Espainiako Literatura Sari Nazionala, saiakera alorrean, *Eskarmentuaren paperak* (Alberdania, 2009) lanarengatik.

Haur eta gazte literaturari dagokionez, lehenengo urratsak 70eko hamarkadan eman zituen Lertxundik, euskarazko irakaskuntzaren oinarriak ezartzen ari ziren garaian. Beste idazle batzuen moduan, irakasle lanetan ari zen, eta, ikasleei euskarazko testu liburuak eta irakurgaiak eskaini ahal izateko, sortzen hasi zen.

Esan daiteke *Tristeak kontsolatzeko makina* (Erein, 1981) izan zela soilik asmo literarioarekin argitara eman zuen lehenengo lana. Gianni Rodariren eragina aipatu izan da, umore ukituarekin irudimenerari lekua eskaintzen dioten 11 ipuin surrealista hauetan.

1982an, *Haur literaturaz* (Erein) argitara eman zuen, hizkuntzaren lorpen prozesuan ahozko literaturak, eta, oro har, haur literaturak eskaintzen dituen baliabide pedagogikoak azaltzeko.

20 urte geroago, testu hartan aurkeztutako tesien haritik, *Aizak eta aizan elkarrekin dantzaz* (Elkar, 2002) eman zuen argitara *Dona dona* bilduman. Liburuaren sarreran literatura eta hizkuntzaren transmisioaz ari da idazlea, eta altxor tradizionalak hizkuntzaren sena transmititzeko ematen digun aukeraz. Horrela, berak hiru eratako pieza poetikoak proposatzen ditu liburu honetan: tradizioaren altxorretik zuzenean jasoak, altxor horren imitazioz sortuak, eta sormeneko beste lan berriak, betiere tradizioaren eiteari bizkar eman gabe eginak.

Bestalde, bi data horien artean egin zituen beste ahalegin batzuk tradizioa modu ludikoan emateko, euskara hizkuntza espresibo bihurtu ahal izateko haurren artean. Horrela sortu ziren 1984 eta 1986 urteen artean *Maria Goikoarenak eta bi saila*, lau izenburuz osatua, eta *Maria Goikoarenak saila*, hiru izenburuz osatua.

Maria Goikoarenak eta bi saila 2011n berreskuratu dute Klis-Klasikoak¹ proiektuaren barruan. Bere balio nagusia jolasa eta hizkuntza lotzea da: poema, hizkuntza jolas, antzerkitxo, ipuin, abesti eta antzeko testuek osatzen dute, denak ere ahoz lantzeko pentsatuta. Nabarmena da Antton Olariaga ilustratzaileak duela 25 urte egindako trataera grafikoak oraindik ere baduen gaurkotasuna, Lertxundiren proposamenak estetika zaindu batean txertatuz.

Narratibari dagokionez, *Madame Kontxesi-Urbe, brigada & detektibe* saila (Erein) argitaratu zuen 1988 eta 1989 urteen artean Lertxundik. Ofizios andereño den Kontxesi Uribe andreak detektibe eta misterio liburuak maite ditu, eta ezin da egon bere inguruko *misterioak* argitu gabe. Umorez kontatzen dizkigu idazleak emakume xe-

1. Haur eta gazte literaturako lan klasikoetarako sarbidea izan nahi du Klis-Klasikoak bildumak; hots, 4 eta 16 urte bitarteko irakurleei (ez haiei bakarrik, baina bereziki haiei) euskarazko literatur obra kanonikoak eskueran jartzea zein beste hizkuntzetako klasi-koen itzulpen egokiak eskaintzea du xede nagusi. Galtzagorri Elkarteak sortu du bilduma hau, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan.

bre honen gorabeherak, bere ahotan esamolde eta atsotiz zahar eta berriak jarrita, detektibe istorioen klixe guztiak jarraituz.

1999 eta 2000 urteetan, berriz, *Maxe* sailari (Elkarlanean) ekin zion Lertxundi-Olariaga tandemak, kalitate handiko edizio batean. Hiru izenburu hauetan, Maxe neskatilaren eguneroko bizitza kontatzen digu. Argazkigintzarako duen afizioa dela eta, arazo bat sortzen zaio liburu bakoitzaren hasieran, eta bere irudimenak urrutiegi eramaten du neska. Lehenengo pertsonan daude idatzita, eta egunkari kutsua darie. Egitura berdinari eusten zaio hiru istorioetan, eta gazte-txoen eguneroko gatazkak, familia eta lagun arteko harremanak, eta kezka eta itxaropenak modu egokian islatzen dira.

Bakoitzaren bukaeran, eta ateratako beste argazki batzuen aitzakiarekin, narraziotik kanpo dauden informazio txatalak ematen dizkigu idazleak: esamolde zenbait argitzeko, tradizio zaharrak berri-tzeko, edo istorioarekin zerikusia duten zenbait datu azaltzeko.

Ezin dugu utzi aipatu gabe Lertxundiren lan guztiak Antton Olariagak ilustratu dituela, eta nabarmena dela nola uztartzen diren irudiak idazlearen testuarekin. Olariaga ilustratzeaz harago doa, liburu-ran trataera grafikoa osotasun batean ematea lortzen baitu.

Sariak

- *Tristek kontsolatzeko makina*. IBBYren ohorezko zerrenda (1981)
- *Udaberria*. Kultura Ministerioaren Kalitate Saria (1982)

Bibliografia

- Irakur 1-5*. Mensajero, 1975
Txibiribi bonbon. Erein, 1979
Txilibitu danbolin. Erein, 1979
Ai, Leire, Leire. Erein, 1979
Gaur asteartea da. Erein, 1979
Nikolas Mikolas. Erein, 1979
Sorgin bat aidean. Erein, 1979
Negua. Erein, 1980
Udaberria. Erein, 1981
Uda. Erein, 1981

Udazkena. Erein, 1981
Tristek kontsolatzeko makina: ipuinen ferian. Erein, 1981
Gizon kabalen piurak. Erein, 1982
Lotara joateko ipuinak. Erein, 1982
Tximinitik gora. Erein, 1984
Auskalo mendian. Erein, 1984
Titiritero titirimundi. Erein, 1986
Elegantzia Frantzia. Erein, 1986
Ipurdian bost letra. Erein, 1986
Janda gero, majadero. Erein, 1986
Artillero dale fuego. Erein, 1986
Lekeitioko plazan. Erein, 1986
Bateltxo bat kulunkan. Erein, 1986
Kaxkajo bahituaren kasua. Erein, 1988
Paris de la France-ko pateen kasua. Erein, 1988
Eskiatzaile herrenaren kasua. Erein, 1988
Estalaktita rockeroaren kasua. Erein, 1988
Alarguntsa sikodelikoaren kasua. Erein, 1988
Sardina ezpain gorriaren kasua. Erein, 1989
Peru eta Marixe, mila eta bat komerixe. Erein, 1993
Lehorreko koaderno. Alberdania, 1998
Nire kuleroak. Elkarlanean, 1999
Musubero, mon amour. Elkarlanean, 2000
Nik erremerre hitz egiten dut. Elkarlanean, 2000
Dindirri = Flick. Baigorri, 2001
Aizak eta aizan elkarrekin dantzan. Elkar, 2002
Ezkutuko maitea. Elkarlanean, 2002
Brummm! Elkar, 2003
Graak! Elkar, 2003
Begira, begira tradizioaren leihotik. Elkar, 2006
Batbirulau! Alberdania; Erein; Igela, 2011

Itzulpenak

- *Tristek kontsolatzeko makina:*
La máquina de la felicidad. (Alborada Ediciones, 1988: itz. Lertxundi, A.)
 (Gazt.)
- *Lehorreko koaderno*:

Cuaderno de tierra firme. (Alfaguara, 2001: itz. Giménez Bech, J.) (Gazt.)

– *Nik erremerre hitz egiten dut:*

A mí me patina la egge. (La Galera, 2000: itz. Giménez Bech, J.) (Gazt.)

Á yo me patina a egge. (Xordica, 2000: itz. Usón, C.R.) (Arag.)

Patíname la egge. (Libros del Pexe, 2000: itz. Espina, C.) (Astu.)

A mi em patina la egga. (Tàndem, 2000: itz. Escrivá, M.J.) (Kat.)

A mi em patina la egga. (La Galera, 2000: itz. Canals, A.) (Kat.)

Eu tghpezo no eghe. (Galaxia, 2000: itz. Carballo Soliño, X.) (Gal.)

Obra lagina

Lan honetan, Lertxundi bere kezka nagusietako bati erantzuna ematen saiatzen da: tradizioaren iturritik edanda, gaur egungo haur eta gazteei hizkuntzaren berezko sena transmititzea, eta hizkuntza afektibo bat eratzeko tresnak ematea, hain zuzen, hezkuntza sistemaren barruan lortzen ez dutena. Liburu honen hitzaurrean, egileak bere helburua argi azaltzen du, eta hiru eratako pieza poetikoak proposatzen ditu, tradizioaren altxorretik abiatuta.

Aukeratu dugun honek, *Errak bat* olerki tradizionala du oinarritzat, errepikatze eta metatze egitura baten barnean, erlijio katolikoaren dogmak laburbiltzen dituena. Idazleak egiturari bere horretan eutsi dio zehatz-mehatz, eta dogma bakoitza naturaren edo bizimodu arruntaren baieztapen batekin ordezkatzen du, olerkiaren karga ideologikoa ezabatuz, baina bere beste balio guztiak, literarioak, linguistikoak edota ludikoak, bere horretan gordez.



Aizak eta aizan elkarrekin dantzan.

II. Antton Olariaga. Elkar, 2002: 38-41. orr.

Errak bat (eta II)

–*Errak bat!*

–*Gure mundua bera duk bat.*

–*Errak bi!*

–*Egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.*

–*Errak hiru.*

–*Hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.*

–*Errak lau.*

–*Lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.*

–*Errak bost.*

–*Bost kontinente handi; lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.*

–*Errak sei.*

–*Dado batek sei alde; bost kontinente handi; lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.*

–*Errak zazpi.*

–*Asteak zazpi egun; dado batek sei alde; bost kontinente handi; lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.*

–*Errak zortzi.*

–*Zortzi dira haizeak; asteak zazpi egun; dado batek sei alde; bost kontinente handi; lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.*

–*Errak bederatzi.*

–*B-e-d-e-r-a-t-z-i letra eder; zortzi dira haizeak; asteak zazpi egun; dado batek sei alde; bost kontinente handi; lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.*

–Errak hamar.

–Hamar hatz, hamar behatz; *b-e-d-e-r-a-t-z-i* letra eder; zortzi dira haizeak; asteak zazpi egun; dado batek sei alde; bost kontinente handi; lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.

–Errak hamaika.

–Eginahalak hamaika; hamar hatz, hamar behatz; *b-e-d-e-r-a-t-z-i* letra eder; zortzi dira haizeak; asteak zazpi egun; dado batek sei alde; bost kontinente handi; lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.


–Errak hamabi.

–Hamabi hilabete; eginahalak hamaika; hamar hatz, hamar behatz; *b-e-d-e-r-a-t-z-i* letra eder; zortzi dira haizeak; asteak zazpi egun; dado batek sei alde; bost kontinente handi; lau puntu kardinalak; hirustaren hiru hosto; egunaren bi zati; gure mundua bera duk bat.

–Errak hamahiru!

–Ez dok hamahiru!

–Oilarra hasi da kantuan,
argia egin da zeruan,
neure arima uzten diot
egun berriari altzoan.



KARLOS LINAZASORO

(Tolosa, 1962)

Soslai bio-bibliografikoa

Euskal Filologian lizentziatua, Karlos Linazasoro Tolosako Udal Liburutegian ari da lanean gaur egun. Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera, asteroko zutabe bat idazten du egunkari batean.

Idazle oparoa, genero gehienak landu ditu, batez ere ipuina, poesia eta aforismoak, bai irakurle helduei zuzenduta, bai gazte zein haurrei zuzenduta.

Besterik gabe, Albina (Ibaizabal, 1991) eleberri errealistarekin zuzendu zitzaizen gazteei lehenengo aldiz, zahar-etxe bateko komediak kontatuz. Harrezkero, hainbat izenburu argitaratu ditu haur eta gazte literaturan.

Aipatzekoak dira Juan Kruz Igerabiderekin lau eskutara idatzitako bi obra, Igerasoro ezizena erabiliz: *Gau, gau, gau* (SM, 1997), ipuina, 1997ko Baporea Saria jaso zuena, eta *Kartapazioko poemak* (Ibaizabal, 1998), edozein gaztek, institutuko asperraldi uneetan, karpeta bazterretan idatzitako poesia, esaldi eta burutazioak jasoz.

Bota gorriak (Anaya Haritza, 2000) ipuinarekin, 2001eko Euskadi Saria irabazi zuen haur eta gazteentzako literatura alorrean. Irudimenez betetako istorio surrelista honetan, *Hamabi titare* (Aizkorri, 1999) poesia liburuan argitara emandako haiku erako poema batzuk ere txertatzen dira.

Oro har, lan narratiboetan umore, absurdo eta egoera surrealiste-kin jokatzeko du, bai hurrei zuzentzen zaienean, Matteomigliako sailean adibidez, *Franti* (Giltza, 2002), *Lau ipuin matteomigliar* (Elkar, 2005) eta *Nuvolari Plaza* (Erein, 2011) lanetan, bai gazteei zuzentzen zaienean, *Urperatze handia* (Elkar, 2009) eta *Udalbatza bahituaren kasu pollita* (Elkar, 2011) lanetan. Dena den, beste erregistro batzuk erabiltzeko gai ere bada, hala nola, genero poliziakoa, *Mendekuaren graziaz* (Erein, 2004) liburuan bezala.

Era berean, gaiak eskatzen badio, sentsibilitate handia erakusten du Linazasorok errealitatea modu xaloan islatzeko, adibidez, *Etzi* (Elkar, 2007) lanean, non mutiko batek Down sindromedun anaia Brunoren berri ematen digun.

Poesian ari denean, jostari ageri da idazlea: lehenengo urratsak *Hamabi titare* (Aizkorri, 1999) liburuarekin eman zituen, esan bezala haiku erako poema laburrekin, haurrak hizkuntzarekin jolastera gonbidatuz. Gazteei zuzentzen zaienean, amodioa du hizpide nagusi, *Zein beste mundukoa* (Elkar, 2008) poesia bildumak erakusten duen moduan. *Txori kantariak poeta hegalaria* (Elkar, 2003) eta *Zaldiko-maldikoan* (Aizkorri, 2003) lan kolektiboetan ere argitaratu ditu poemak.

Bat-batean, krispetak (Alberdania, 2011) liburuan, aldiz, ipuinaz gain, aforismoak eta neurri desberdinetako poema eta koplak ere eskaintzen ditu, adin desberdinetako haur eta gazteen gozamenerako.

Sariak

- *Gau, gau, gau*. (Juan Kruz Igerabiderekina batera) Baporea Saria. SM argitaletxea (1997)
- *Bota gorriak*. Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza (2001)

Bibliografia

- Besterik gabe, Albina*. Ibaizabal, 1991
Udazkeneko karabana erratua. Elkar, 1991
Ipuin arriskutsuak: Bernardo L.-ren azken idazlanak. Erein, 1994
Euriaren eskuak. Alberdania, 1995
Altzeta. Alberdania, 1996
Gau, gau, gau. SM, 1997

Kartapazioko poemak. Ibaizabal, 1998
Hamabi titare. Aizkorri, 1999
Oihan tiki baina txukun batean. Aizkorri, 1999
Bota gorriak. Anaya Haritza, 2000
Hugo. Aizkorri, 2000
Walter Sismoley Eliseoko Zelaietan. Elkarlanean, 2000
Entzungailua. Elkar, 2002
Franti. Giltza, 2002
Txori kantariak poeta hegalaria. Elkar, 2003
Zaldiko-maldikoan. Aizkorri, 2003
Lau ipuin Matteomigliar. Elkar, 2005
Bestiarioa; Hilerrikoiak: bi nobela llabur. Elkar, 2006
Hogeita sei urte geroago. Erein, 2006
Etzi. Elkar, 2007
Zein beste mundukoa. Elkar, 2008
Urperatze handia. Elkar, 2009
Bat-batean, krispetak. Alberdania, 2011
Nuvolari plaza. Erein, 2011
Udalbatza bahituaren kasu pollita. Elkar, 2011
Bertan goxo. Elkar, 2012

Itzulpenak

– *Bota gorriak:*

Las botas rojas. (Anaya, 2000: itz. Linazasoro, K.) (Gazt.)

Les botes roges. (Anaya, 2000: itz. Arizmendi, M.) (Kat.)

Les botes vermelles. (Barcanova, 2001: itz. Hernández, J.P.) (Kat.)

As botas vermelhas. (Anaya, 2000: itz. Torres, C.) (Gal.)

– *Franti:*

Franti. (Edebé, 2002: itz. Linazasoro, K.) (Gazt.)

– *Bestiarioa; Hilerrikoiak=Bestiario; Florilegio de Camposanto.* (Atenea, 2012: itz. Markuleta, G.) (Eus.-Gazt.)

Obra lagina

Lan honetan, Linazasorok bere obraren ezaugarri nagusiak erakusten dizkigu. Hizkuntzaren jokoak ezin hobeto menperatzen ditu, gai da edozein hitzi bigarren edo hirugarren esanahi bat topatzeko, eta umorea zein lirismoa beti prest ditu, irakurlearen irribarrea edo hausnarketa eragiteko.



Bat-batean, krispetak.

II. Maite Gurrutxaga. Alberdania, 2011:
45-50. orr.

Naturaren xomorroak

[...]

Segak belarrari ixo eta ixo! esaten dio.

*Lehen hostoak jauzi egin artean, gainerakoak geldi-geldi
egoten dira adarretatik zintzilik.*

*Intxaurraren oskolak garun ttiki bat
gordetzen du barruan.*

[...]

Kamamila-loreak sekula ez du tripako minik izan.

*Saguzarra buruz behera zintzilikatzen da mundua den bezalakoa ikusi
nahi duenean.*

[...]

Baleak zulo bat dauka bizkarrean itsasoak arnas hartu ahal dezan.

Uda, neguan, negutegietara erretiratzen da.

[...]

Ez dago bi euri tanta itsasteko modurik.

[...]

Kamaleoiak, mozorrotzen ez denenan, ez du bere burua ezagutzen.

[...]

Aharia beti lanean ahari da.

[...]

Dortoka astero-astero ibiltzen da.

[...]

Nire seme Mattin saltoka dabil: matxinsaltoka!

[...]

*Abuntzak, daukan extularekin, ez luke gauerdian larrean ibili behar.
Ordeka-ordekan, atsedean hartzen, aldapa.*

[...]

*Txurroz beterik kukurutxo.
Azukrea bota diet gainetik.
Elur euriaren gozoa!*

[...]

*Iparrorratza
bost zentzuak
eta izate osoa galduta,
Hegoa maite du-eta.*



MIREN AGUR MEABE

(Lekeitio, 1962)

Soslai bio-bibliografikoa

Irakasle ikasketak egin zituen, eta, ondoren, Euskal Filologian lizentziatu zen Miren Agur Meabe. Irakaskuntzan lan egin zuen urte batzuetan zehar, eta argialetxe batean editore lanetan aritu da. Idatzizko zenbait hedabidetan ere kolaboratzen du, eta helduentzako literaturan, poesia eta ipuina landu ditu batik bat.

Haurrentzako poesia landu du; batetik narratibako lanetan tartekatuta, hala nola *Izar bat zopan* (Giltza, 2008) lanean; eta, bestetik, bi poesia bildumetan jasota, *Zaldiko-maldikoan* (Aizkorri, 2003) eta *Txori kantariak poeta hegalaria* (Elkar, 2003).

Hurrei zuzendutako ipuin eta albumak ere idatzi ditu Meabek, haurraren egunerokotasuna lirismo ukituarekin deskribatuz, *Izar bat zopan* (Giltza, 2008) liburuan adibidez, non protagonistak bere musikarako zaletasuna kalean erakusteko ausardia duen; edota umorez, eta egitura errepikakorra erabiliz, haurraren beldurra uxatu bidean, *Supositorioak otsoarentzat* (Giltza, 2006) albumean, non Eider Eibarren ilustrazioek testuarekin solas egiten duten.

Beste album gogoangarri bat *Mila magnolia lore* (Gero, 2010) da, gatzetxoei zuzendutakoa, nahiz eta protagonista ospitalean gaixorik dagoen ume bat izan. Berak koaderno bat du, eta marrazki eta poemak bidez erantzuten die une ilun horietako galderei. Leihoaz bestaldean, berriz, magnolia bat dago, beste norabait bidaiatzeko txalupak

diruditen lorez beterik. Kasu honetan ere, Eider Eibar da ilustrazioen egilea.

Gazteentzako eleberriek eman dizkiote izena eta sariak Meaberi, hiru lanekin Euskadi Saria irabazi baitu haur eta gazte literaturaren alorrean. *Itsaslabarreko etxea* (Aizkorri, 2001) izan zen lehenengoa. Abenturazko nobela honek iraganeko detektibe misterioak, nerabearoko ezinegonak eta lehen amodioak nahasten ditu, narrazio klasikoaren moldeetan garatuta.

Urtebete itsasargian (Elkar, 2006), bigarren lana, aurrekoa bezala, idazleak ondo ezagutzen duen kostala giroan kokaturik dago. Gerra Zibileko pasadizo historikoak eta nerabe amodioak nahasten ditu berriz ere, heziketa-nobela klasikoaren bidean.

Eta azkenik, *Errepidea* (Erein, 2010) izan da hirugarren eleberri saritua. Ausartagoa da gaiaren hautaketan, errealismo sozialerantz lerratuta, eta egitura narratiboari dagokionez ere bai.

Berriz ere protagonista gazte bat dugu, Rigel, 13 urteko neska. Eguneroko baten itxura duen nobela da, lehenengo pertsonan emana baita. Bere bizitza gogorraren kontakizun errealista egiten digu Rigel, eta bere amarekin bizi dituen hainbat uneren deskribapena egiten digu. Tratu txarrak eta egoera bortitzak ez dira ezkututzen, baina errealismo honekin batera tonu poetikoa nabarmentzen da, batez ere hegaztiez egiten dituen deskribapenetan. Eta, hala ere, bukaeran, itxaropenak badu bere lekua.

Egitura aldetik, nabarmentzekoa da pasarte batzuk hegaztiak lehen pertsonan kontaktzen dituztela, errealitatearen ikuspuntu bitxia eskainiz.

Gazteentzako edizioetan ezohikoa den pisua dute Aitziber Alonso ilustratzailearen irudiek, koloretan emanek. Testuaren zenbait une jasotzen dituzte, hari darion malenkonian modu egokian islatuz.

Sariak

- *Itsaslabarreko etxea*. Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza (2001)
- *Urtebete itsasargian*. Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza (2006)

- *Errepidea*. Euskadi Saria: euskarazko haur eta gazte literatura. Eusko Jaur-larritza (2011)
- *Mila magnolia lore*. IBBY ohorezko zerrenda (2012)

Bibliografia

Bisita = The visit. Gara. Euskal Ipuin Bilduma, 2001
Itsaslabarreko etxea. Aizkorri, 2001
Joanes eta Bioletaren bihotza. Elkar, 2002
Amal. Gara. Euskal Ipuin Bilduma, 2003
Nola zuzendu andereño gaizto bat. Giltza, 2003
Etxe bitan bizi naiz. Elkar, 2003
Zaldiko-maldikoan. Aizkorri, 2003
Txori kantariak poeta hegalaria. Elkar, 2003
Egizu lo. Elkar, 2005
Supositorioak otsoarentzat. Giltza, 2006
Urtebete itsasargian. Elkar, 2006
Izar bat zopan. Giltza, 2008
Zer da, ba, maitasuna?. Elkar, 2008
Olatu guztien gainetik. Ibaizabal, 2009
Mila magnolia lore. Gero-Mensajero, 2010
Errepidea. Erein, 2010

Itzulpenak

- *Itsaslabarreko etxea*:
La casa del acantilado. (Edebé, 2004: itz. Meabe, M.A.) (Gazt.)
- *Nola zuzendu andereño gaizto bat*:
Cómo corregir a una maestra malvada. (Edebé, 2003: itz. Meabe, M.A.) (Gazt.)
- *Etxe bitan bizi naiz*:
Vivo en dos casas. (La Galera, 2003: itz. Meabe, M.A.) (Gazt.)
Bibo en dos casas. (Xordica, 2003: itz. Arias, C.T.) (Arag.)
Eu vivo en dúas casas (Galaxia, 2003: itz. Carballo, X.) (Gal.)
Vivo en dos cases. (Libros del Peixe, 2003: itz. González Espina, C.) (Ast.)
Visc en dues cases. (Tàndem, 2003) (Kat.)
Visc en dues cases. (La Galera, 2005: itz. Serramiá, L.) (Kat.)
- *Supositorioak otsoarentzat*:

Supositorios para el lobo. (Edebé, 2006: itz. Meabe, M.A.) (Gazt.)

– *Urtebete itsasargian:*

Un año en el faro. (Lóguez, 2008: itz. Meabe, M.A.) (Gazt.)

– *Izar bat zopan:*

Una estrella en la sopa. (Edebé, 2008: itz. Meabe, M.A.) (Gazt.)

– *Zer da, ba, maitasuna?:*


¿Qué es el amor, sino...? (Lóguez, 2011: itz. Meabe, M.A.) (Gazt.)

– *Errepidea:*

La carretera. (Erein, 2012: itz. Meabe, M.A.) (Gazt.)

Obra lagina

Rigelen ahotan jasotzen dugun lehenengo pasarteak ezin hobeto erakusten du lan osoaren tonua eta nondik norakoa. Umearoa oraindik apenas utzi duen neskatila honek heldutasun gordinarekin bizi du bere patua.



Errepidea.

II. Aitziber Alonso. Erein, 2010: 14-17. orr.

1 Karabana bat da gure etxea

Zaplaztekoak malko bi atera dizkit. Bi. Bi zehazki. Ohituta nago negarrari eusten. Baina gaur ustekabean harrapatu nau amak, blaust! Eta tanta bi atera zaizkit, sorpresagatik, ez minagatik. Mina ondo jasaten dut. Bi malko isuri, eta kitto. Ez dut txintik esan. Gero lanera joan da ama.

Eguerdian umore onean etorri da, goizekoaz ahaztuta, antza. Nik, hala ere, gordeko diot gaurkoa. Ez ninduen jo behar esnea pixka bat erre zaidalako.

Karabana batean bizi gara. Kontua da goizaldean ontzia sutan ipini, eta kanpora atera naizela egunsentia ikustera. Horretan nengoela, suak azpia hartu dio ontziari. Erre-sunda sumatu dudanerako, bizkor sartu naiz, eta atean harrapatu nau blastadak.

–Rigel! Zer uste duzu, dirua botatzeko daukagula, ala?

Amak alde egindakoan, berriz sartu naiz ohean, eskola ez da bederatziak arte hasten eta. Udaberrian, behin jaikiz gero, ez naiz berriro oheratzen; nahiago dut mendi-bideetan galtzea.

Jaiki, beti jaikitzen naiz amarekin batera, seietan. Berak nahi izaten du nik laguntzea zer edo zer egiten bera prestatzen den bitartean: edo gosaria ipini, edo garbigailuko arropak kordelean zabaldu, edo basoaren mugaldean dagoen iturritik ura ekartzea plastikozko bidoi batean.

Zelaia zeharkatzen dut alderik alde, iturrira joateko. Oraindik eguraldi ona dagoenez, basatxoriak esna egoten dira ordurako. Haien joan-etorriei begira egoten naiz, nola datozen ura edatera. Gertatu ere, gaur gauza polit bat gertatu da: kardantxilo batek huntz-adar bat ekarri du mokoan iturri ondora, ni han nengoela. Hartu, eta ilean ipini dut, xingola baten antzera.

Halako gertaera bitxiek pentsarazten didate batzuetan airean zerbait dagoela, ikusi ez baina sumatu egiten dudana, zerbait hegazkorra, txoriarena ez dena.



JOXANTONIO ORMAZABAL

(Zegama, 1948-2010)

Soslai bio-bibliografikoa

Irakasle ikasketak egin, eta Zarauzko ikastolan zein Beasaingo Alkartasuna lizeoan aritu zen irakasle Joxantonio Ormazabal.

Irakaskuntzatik edizioaren alorrera pasatu zen 1981ean, eta 2009an erretiratu zen arte, Elkar argitaletxean jardun zuen haur literaturaren alorrean.

Ormazabalek gaur egungo haur eta gazte literaturan eragin izugarria izan duela baieztatu daiteke. Editore moduan ehunka lan eman zituen argitara, eta liburuaren prozesu guztian parte hartzeko beta izan zuen: itzulpengintza, egokitzapen eta sortze-lanetan. Testuliburuaren sorkuntza eta moldaketa ugari ere burutu zituen Ikastolen Elkarreko hainbat proiektutarako.

Bere lan asko tradiziozko ipuinen moldaketan burutu zituen, askotan Jose Migel Barandiaranek jasotakoetan oinarrituta.

Ormazabalen eskutik etorri ziren, halaber, Goierri aldeko hiru pertsonaia xebrereren pasadizoak jasotzen dituzten liburuak: *Perlando Amezketarra* (Elkar, 1982), *Lazkao Txiki* (Elkar, 1995) eta *Antonio Bolas* (Elkar, 2002). Kapitulu kapitulu, umore onean, hiru gizon hauen berri ematen digu, betiere bere irakurle gazteek ongi pasatzeko idatzitako lan hauetan.

Sortze-lan propioetan umorea behin baino gehiagotan landu zuen idazleak, hala nola, *Amona bizikletan* (Elkar, 2001), *Aitona parapen-*

tean (Elkar, 2004) eta *Aitona eta amona udalekuetan* (Elkar, 2008) liburu sortan. Eguneroko bizimodutik urrundu gabe, haurrak eta aitona-amonak egiten ditu abenturen protagonista, guraso eta beste helduak guztiz kanpo utzita. Hiru lanetan Jokin Mitxelenaren ilustrazioek umoreari ukitu berezi bat eransten diote.

Jorratutako beste esparru bat genero desberdinetako pieza motzez osatutako liburuak izan ziren. Egilearen hitzetan haurrek ondo pasatzeko idatziak ziren hauek ere, gustura egoteko emanak: ipuinak, olerkiak, txisteak, igarkizunak... era askotako irakurgaiak jasotzen ziren, *Esaera zaharrak eta txiste berriak* (Elkar, 1981) liburuarekin hasi, eta *Txoko txiki txukuna* (Elkar, 1998) edo *Amaren titi-xorroak* (Elkar, 2006) lanetan jarraipena izan zutenak. Denborak aurrera egin ahala, testuak soiltzen eta biluzten joan ziren, batez ere poesiaren kasuan, betiere umorea, fantasia edota gai sozialak uztartuz.

Urteetan zehar sortutako ipuinak jaso zituen Ormazabalek *Ehun ipuin hitz gutxitan* (Elkar, 2010) bilduman. Lerro gutxiko mikroipuinetatik hasita, neurri motzeko piezak aurkitzen ditugu, gehienetan txiste edo ateraldi gatzdunetatik gertu.

Poesia aise landu zuen Ormazabalek, eta, adibidez, *Txori kantariak poeta hegalaria* (Elkar, 2003) eta *Zaldiko-maldikoan* (Aizkorri, 2003) lan kolektiboetan argitaratu zituen lanak.

Beste obra batzuetan ere olerki eta bertso ugari txertatu bazituen ere, *Hiztegi jolastia* (Elkar, 2002) eta *Ilunorduak eta argilaurdenak* (Elkar, 2007) nabarmentzen dira poesia hutsezko liburuen artean. *Hiztegi jolastian* alfabetoko hizki bakoitzari eskaintzen dio olerki bat. Aliterazioaz baliatuz, errepikapen eta errimarekin jolasean, pieza erritmikoak sortzen ditu, haur txikiekin ozen irakurtzeko aproposak.

Ilunorduak eta argilaurdenak neska-mutil koskorragoei zuzendua dago. Bizitzaren zentzuaren eta maitasunaren inguruan hausnarketa franko egiten ditu idazleak, lirismo handiz beteriko poesia soiletan.

Bere ibilbide osoan jasotako sari bakarra, Iraia Okina ilustratzailearekin burututako *Zirkua amets* (Pamiela-Faktoria K, 2009) lanarengatik jasotako Etxepare Saria izan zen. Album honek bidaia bikoitz baten istorioa kontatzen du: benetako bidaia eta irudimenezko bidaia, amona eta iloba protagonistek bizi dutena, zirkura joateko egiten duten ibilbidean. Sariaren epaimahaiaren esanetan, «liburuak

maisuki heltzen dio haurraren beldurren gaiari eta, gainera, bere egitura biribila ere aipagarria da. Irudiei dagokienez, nabarmenena zera da: minimalismoaren bidez eta kolore-paleta murriztua erabiliz, ipuinaren unibertso onirikoa ederki islatu izana».

Sariak

- *Zirkua amets*. Album Ilustratuen Etxepare saria. Nafarroako udaletako Euskara Zerbitzuak. (2008)

Bibliografia

Lau anaia umezurtzak. Elkar, 1981
Esaera zaharrak eta txiste berriak. Elkar, 1981
Pernando Amezketarra. Elkar, 1982
Kaxkarintxo (Mariasun Landarekin). Elkar, 1982
Martixio asmatzailea. Elkar, 1983
Margolin. Elkar, 1983
Peru Gezurtia: ipuin herrikoa. Elkar, 1983
Zoritxarreko babutxak: ipuin arabiarra. Elkar, 1984
Kotti. Elkar, 1984
Patxibusa. Elkar, 1985
Otsoa eta azeria. Elkar, 1985
Astoa, zakurra, katua... Elkar, 1985
Maripertxenta. Elkar, 1986
Kaiolatik mendira. Elkar, 1986
Honela bizi naiz ni. Elkar, 1986
Auto asto tren. Elkar, 1986
Kittano. Elkar, 1988
Txisteak. Elkar, 1990
Igarkizunak. Elkar, 1990
Esaera zaharrak. Elkar, 1990
Saturna. Elkar, 1992
Hitzak jostailu. Elkar, 1994
Lazkao Txiki. Elkar, 1995
Urrestillako lau musikariak. Elkar, 1998
Txoko txiki txukuna. Elkar, 1998
Sukaldaria eta sugandila. Elkar, 1998
Olentzeroren zuhaitza. Elkar, 1998

- Nola ibili munduan ohetik jaiki gabe.* Elkar, 1998
Josebiñe. Elkar, 1998
Izei txikia. Elkar, 1998
Ehunzango kaskarina. Elkar, 1998
Bi indiar txiki inauterietan. Elkar, 1998
Txoria zezenaren adar gainean. Elkar, 1999
Lehoia eta kilkerra. Elkar, 1999
Koxmeren gezurrak. Elkar, 1999
Txanogorritxo. Elkar, 2000
Makilakixki. Elkar, 2000
Hiru txerrikumeak. Elkar, 2000
Haizemari. Elkar, 2000
Gorritxo eta Beltxiko. Elkar, 2000
Babarrun ale magikoak. Elkar, 2000
Azenario erraldoia. Elkar, 2000
Artzain gezurtia. Elkar, 2000
Arroxali. Elkar, 2000
Tartalo. Elkar, 2001
Bihotza zubi. Elkar, 2001
Amona bizikletan. Elkar, 2001
Irri eta barre. Elkar, 2002
Hiztegi jolastia. Elkar, 2002
Antonio Bolas: gezurrak egiaren kolorean esaten zituen gizon baten istorioak. Elkar, 2002
Txori kantariak poeta hegalariak. Elkar, 2003
Zaldiko-maldikoan. Aizkorri, 2003
Aitona parapentean. Elkar, 2004
Zapatari asmatzailea; Zerraldoan bizirik: herri ipuinak. Elkar, 2005
Pepetxu eta Popatxu; Kardulatza salatari: herri ipuinak. Elkar, 2005
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki; Zeruko berriak: herri ipuinak. Elkar, 2005
Ikazkina eta heriotza; Besterik ez bezalako kapela: herri ipuinak. Elkar, 2005
Estudiante tonto; Ezkonberriak: herri ipuinak. Elkar, 2005
Zipriztin. Elkar, 2006
Amaren titi-xorroak. Elkar, 2006
Ilunorduak eta argilaurdenak. Elkar, 2007
Aitona eta amona udalekuetan. Elkar, 2008
Zirkua amets. Pamiela-Faktoria K, 2009

Hitz eta zaunka. Elkar, 2009
Bremengo musikariak. Elkar, 2009
Txanogorritxo. Elkar, 2010
Hiru txerrikumeak. Elkar, 2010
Ehun ipuin hitz gutxitan. Elkar, 2010
Haizelami. Elkar, 2011
Ilargia esnatu da. Elkar, 2012

Itzulpenak

– Peru Gezurtia:

Pedro Pícaro. (La Galera, 1983: itz. Pastor, J.A.) (Gazt.)
O Pedro Pillabán. (Galaxia, 1983: itz. García, R.) (Gal.)
En Pere Trapella. (La Galera, 1983: itz. Canela, M.) (Kat.)

– Txoria zezenaren adar gainean:

Un pájaro sobre el cuerno de toro. (La Galera, 1999: itz. Ormazabal, J.) (Gazt.)
Un ocell sobre la banya d'un bou. (Bromera, 1999: itz. Cassany, B.) (Kat.)
Un ocell sobre la banya d'un toro. (La Galera, 1999: itz. Cassany, B.) (Kat.)
O paxaro no corno do touro. (Galaxia, 1999: itz. Villalín, D.) (Gal.)
Un páxaro en cuernu d'un toru. (Libros del Peixe, 1999: itz. Marín, P.A.) (Astu.)
Un paxaro sobro o cuerno d'un toro. (Xordica, 1999: itz. Diest, C.) (Arag.)

– Zirkua amets:

Sueños de circo. (Faktoria K, 2009: itz. Calleja, S.) (Gazt.)
Soños do circo. (Faktoria K, 2009: itz. Pérez Tato, S.) (Gal.)

Obra lagina

Ormazabalen bi ahotsak islatzeko ezinbestekoa da bere poesia lanen bat eta bere ipuinak irakurtzea. Poesian melankoniatsu aurkituko dugu, hitzak neurtuz, esanahiaren muina biluzik ekartzeko.



Ilunorduak eta argilaurdenak.

II. Elena Odriozola. Elkar, 2007:

23. or.


*Ezer ez da ezer
ni gabe
niretzat.
Ezer ez da ezer
zu gabe
niretzat.*

*Ba al da zerbait
ezer
ni gabe
zuretzat?*

33. or.

*Urpekariak
aldika-aldika
burua ateratzen du
ur azpitik.
Nik ere
nahi nuke
ilunordu bakoitzeko
argilaurden bat,
arnasa hartzeko.*

Ipuinetan, aldiz, umoretsu azaltzen zaigu batzuetan, serio bestetan, eguneroko bizitza gure begien aurrean jarriz bere argi eta itzalak erakusteko.



Ehun ipuin hitz gutxitan.

Il. Jon Zabaleta. Elkar, 2010: 94-95. orr.

82 (d) DIRUA ETA AUTOA

Rikardok iragarki bat jarri zuen egunkarietan:

“Ate guztiak irekitzen dituen giltza bat daukat salgai”.

Eskatutako ditu guztia ordaindu zion gizon gorbatadun batek.

Lapur talde baten buru zen gizon hura, nahiz eta Rikardok jakin ez.

Logelako mesanotxean gorde zuen Rikardok dirua, milaka eta milaka euro, plastikozko poltsa handi batean.

Hurrengo goizean, asteartez, hamaikak aldera ateratzen zen Rikardo etxetik aberatsaren bizitza probatzen hasteko prest.

Izarrak begiak irekitzen hasi zirenean, etxeratu zen Rikardo. Logelara sartu zenean, mesanotxeko atea irekita aurkitu zuen. Aurreko egunean han gordetako plastikozko poltsa falta zen. Gau osoan ez zuen lorik egin.

Hurrengo goiza argiz bete zenean, asteazkenez, Rikardo autoa hartzerara joan zen garajera, Ordiziako feriatik buelta bat egiteko asmoz. Baina autoa falta, nahiz eta garajeko atea itxita egon.

Horregatik joan behar izan zuen Rikardok feriara trenaz asteazkenean hartan. Eta han kontatu zion lagun bati nola lapurtu zioten etxetik dirua eta garajetik autoa, sarrailarik batera hondatu gabe.



RUBEN RUIZ

(Gasteiz, 1973)

Soslai bio-bibliografikoa

Ruben Ruiz Gasteizen jaio zen 1973an. Bertan irakasle ikasketak bukatu ondoren, psikopedagogia ere ikasi zuen Donostian. 2001ean hasita, irakasle dihardu Haur Hezkuntzan, Nafarroan.

Galtzagorri Elkarteak argitaratzen duen *Behinola: Haur eta Gazte Literatura aldizkariko* koordinatzaile da 2005az geroztik.

Ipuina landu du, batez ere, bere ibilbidean, *Itsasoaren lezioa* (Descleé, 2002) liburuarekin hasita. Lehenengo pertsonan idatzita, neska batek galdua den itsasoa berreskuratzeko abenturak kontatzen dizkigu. Gaia nahiko tristea izanik, liburuak bide serioa hartzen du.

Azken giltza (Descleé, 2003), *Eta txorimaloa mintzatu zen* (Aizkorri, 2003) eta *Txokolatzeko atzamarra* (Erein, 2003) izan ziren bere hurrengo lanak.

Azken giltza-ren kasuan haurren egunerokotasunean txertatutako liskar eta adiskidetasun kontuak azaltzen dira, baina berriz ere modu serioan landuak.

Eta txorimaloa mintzatu zen egitura errepikakorra duen ipuina da, tradizioaren iturrietatik edaten duena, ezusteko bukaera politarekin.

Azkenik, *Txokolatzeko atzamarra*-k badu umore puntu bat: neskato bat lehengusu batek zainduta gelditzen da etxean gurasoak kanpora doazelako. Lotarako mila komeri egin behar, eta azkenean

zaintzailea lokartzen da lehenago. Neskatoa ere, asper-asper eginda lokartu egin behar orduan!

Narratibarekin jarraitzeko, sarituak izan diren bi obra ditu Ruizek: batetik, *Nora joan da argia?* (Aizkorri, 2006) Etxepare Literatur Saria jaso zuena. Bertan, protagonista den neska txikiak asaldatuta hasten du eguna amaren haserrea eta auzoko txakurraren eraso direla eta. Eguna hasi baino hobeto bukatzen da, eta neskatilak bere ondorio propioak ateratzen ditu pertsona eta animalien portaerez. Laura Sagastumen hitzetan “sinbolismoz beterik datorkigun ipuina da, finezia handiz idatzia —paralelismoak, pertsonifikazioak, hitz joko sotilak...—, Jokin Mitxelenak bizitasun handiz irudikatua —hain testu laburretan, ilustratzaileak lan handia egin behar du pertsonaiak definitze aldera—, eta alde horretatik ipuin honetako marrazkien irakurketa ere oso da ederra” (*Behinola*, 13, 2006).

Bestetik, *Anekdotak* (Pamiela, 2008) lana dugu, hau bi aldiz saritua: 2007an XXVI. Lizardi Sariarekin eta 2009an Euskadi Sariarekin, haur eta gazteentzako literatura alorrean. Liburu honek 30 ipuin oso labur jasotzen ditu, egunkari aire bat dutenak. Bertan Anek idazten du, eta hitzekin jolastea gustatzen zaiolako deitu dio horrela bere koardernoari: anekdotak, Ane izena barne duela. Ruizek haurraren begirada harritu baina zorrotza jasotzen du ipuinez ipuin. Horretarako protagonistak egiten dituen hitz jolasak eta helduen esaera eta jokae-rek sortzen dizkioten gaizki ulertuak azalduz. Eider Eibarren ilustrazioek ere, ikuspegi bereziak hautatuz, haurraren begirada harritu hori areagotzen dute.

Azkenik, poesia ere landu du Ruizek liburu batean, *Sekretuak belarrira* (Aizkorri, 2007) izenburupean, hain zuzen. Urteko hamabi hilabeteen erritmoan, bakoitzari hiru poema eskaintzen dizkio. Laburrak dira, haiku eta koplak zaharren bidetik neurtuak. Errima eta erritmoari lotzen zaizkio, baina Igerabide eta Lopez Gasenik azaltzen duten moduan “errima eta erritmoa barrutik sortzen dira, berez bezala. Aurrena ura bilatzen da, eta gero esku ahurretan biltzen, edateko. Eta ez alderantziz; aurrena ontzi bat hartu (forma) eta gero hasi ur bila.” (*Behinola*, 17, 2008)

Sariak

- *Nora joan da argia?* I. Etxepare Literatur saria: haurrentzako narrazioa. Nafarroako udaletako Euskara Zerbitzuak. (2004)
- *Anekdotak*.
 - XXVI. Lizardi Saria. Zarauzko Udala (2007)
 - Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza (2009)
 - IBBYko ohorezko zerrenda (2010)

Bibliografia

Itsasoaren lezioa. Descleé de Brouwer, 2002

Azken giltza. Descleé de Brouwer, 2003

Txokolatzeko atzamarra. Erein, 2003

Eta txorimaloa mintzatu zen. Aizkorri, 2003

Nora joan da argia? Aizkorri, 2006

Sekretuak belarrira. Aizkorri, 2007

Anekdotak. Pamiela, 2008

Obra lagina

Anek, zortzi bat urteko neskak, egunkari moduko honetan, bere egunerokotasunaren lekuko bihurtzen du irakurlea. Hitzekin jolastea atsegin du, eta helduen munduak izugarritzko harridura sortzen dio askotan. Idazleak, esaldi motzetan, oso ondo islatzen du hori guztia, haurren barne mundua denen begitan jarriz, sekretu txikiak balira bezala.



Anekdotak. II. Eider Eibar. Pamiela, 2008:
43-44. orr.

Musuak I

Atzo, aita mendira joan zen bi egunetarako. «Pirineos» aldera, Izaba herrira. Kotxean sartu zenean, eskua ahoan jarri zuen eta aire-musu bat bota zidan. Susmoa dut ez zuela oso ongi bideratu eta airean galdu zela, nik ez nuen musurik jaso behintzat.

Gaur, aitak arratsalde aldera etorri behar zuen, eta ez da iritsi. Dutzatu, afaldu eta ondoren ohera joan naiz.

Ustekabean, ordu txikitan, erabat lotan nengoenean, ezker masailan, musu bat nabaritu dut. Azkenean jaso dut aitak atzo airez bidalitako musua.

Musuak II

Atzo, musika maisuari bi goxoki oparitu nizkion, bat beretzat eta bestea bere emaztegaiarentzat. Buruan laztan batzuk egin eta eskerrak eman zizkidan.

Gaur, maisuari galdetu diot ea bere neska-lagunari nik emandako goxokia eman ote zion. Maisuak baietz erantzun dit eta, bere lagunaren partez eskerrak eta bi musu eman behar dizkidala gaineratu du.

—Etorri, bere bi musuak emango dizkizut —esan dit maisuak.

—Baina bereak izango dira, e? —nik.

—Bai, bai, bereak izango dira, beldurrik ez izan.

Eta maisuak bi musu eman dizkit, bat masaila batean eta beste bat bestean. Eskerrak ez direla maisuaren musuak izan.

Ruizek, Anek bezala, hitzekin jolastea atsegin du, eta bere poesian nabarmena da, baina jolas hori ez da hutsala, muinari lotzen zaio, aitzinean esan bezala.



Sekretuak belarrira.
Il. Elena Odriozola. Aizkorri, 2007:

24. or.

Ekaina

[...]

EKLIPSEA

*Eguzkia bira eta bira,
ilargia jira eta jira,
kolpean elkartu dira:
sekretuak belarrira*

37. or.

Urria

[...]

MUSUA

*Maite zaitut, aizu,
ez izan izu:
hostoak lurrari musu.*



PATXI ZUBIZARRETA

(Ordizia, 1964)

Soslai bio-bibliografikoa

Gasteizen Euskal Filologian lizentziatua, bertan bizi da orain Patxi Zubizarreta. Irakasle moduan jardun ondoren, laster hartu zuen literatura bizibidetzat, *Ametsetako mutila* (Elkar, 1991) lanarekin hasita.

Haur eta gazte literaturan egindako lanengatik da ezaguna batez ere, baina helduentzaako ere lan ugari idatzi ditu. Horrez gain, musika, irudiak eta literatura uztartzeko ahaleaginean, zenbait ikuskizun sortutakoa da.

Zubizarretaren obra osoan ipuinak, genero moduan, duen garrantzia azpimarratu daiteke. Bere lanetan maiz jaso ditu tradizioetik etorritako ipuinak, narrazio nagusi batean harilkatuta.

Euskal tradizioetik jaso ditu, esate baterako, *Atxiki sekretua* (Elkar, 2004) edo *Urrezko giltza* (Erein, 2005) lanetan; eta beste batzuetan mundu osoko tradizioetatik ekarri ditu, adibidez, *Gutun harrigarri bat* (Elkar, 1992), *Eztia eta ozpina* (Alberdania, 1995) edo *Paularen zazpi gauak* (Giltza, 2002) lanetan gertatzen den moduan.

Idazlearen beste ezaugarrietako bat Ipar-Hegoaren arteko harremanekiko ardura da, eta sarri landu du immigrazioaren gaia, bereziki Ipar Afrika eta Europa artean ematen dena. Lan batzuetan oso modu xume eta sentikorrean azaltzen du, haur txikienek ere ulertzeko moduan, adibidez, *Bakarrik eta Buztangabe* (Baigorri, 2000 – SM, 2002) liburuan. Beste batzuetan ordea, narrazio konplexuagoak osa-

tzen ditu, gazteentzako *Eztia eta ozpina* (Alberdania, 1995) moduko lanetan. Eta badira poesiaz betetako testuak, hala nola, *Enara, zer berri?* (Alberdania, 1996) edo *Hiru lagunak* (Ibaizabal, 2005), non hegazti eta animalien migrazio ohiturak metafora moduan erabiltzen dituen gertakari hauek deskribatzeko.

Pantaleonen bi lanek ere, *Pantaleon badoa* (Pamiela, 2005) eta *Pantaleon lagunekin doa* (Pamiela, 2007) lanek, gai hauetatik guztietatik edaten dute, baina kasu honetan umoreaz eta fantasiaz baliatzen da idazlea elurrezko panpina eta bere lagunen abenturak kontatzeko.

Beste gai korapilatsu batzuk ere mahai gainean jarri dizkigu, adibidez, eskola-jazarpena *Matias Ploff-en erabakiak* (Erein, 1992) lanean; euskal gatazka haurren begietan *Pikolo-n* (Alberdania, 2008); edota bakardadea eta gizarte-bazterkeria *Ostiraletako opila* (Elkar, 1998) ipuinean.

Bere estiloa landua da, baina era berean arina, irakurtzera gonbidatzen duena. Erabiltzen duen beste baliabide bat narrazioa pertsonaia desberdinen ahotsetan jartzearena da, istorioaren ikuspuntu desberdinak eskaintzeko, hala nola, *Midasen eraztuna* (Erein, 1998) edota *Hiru egun balearen sabelean* (Pamiela, 2011) lanetan.

Lirismoak ere badu lekua Zubizarretaren lanetan, eta beharbada *Usoa, hegan etorri zen neskatoa* (Erein, 1999) izan daiteke eredu nabarmenetako bat: bigarren pertsonan kontatua, oso hitz gutxitan ama baten samina eta alabaren harridura kontatzen dizkigu sotiltasunez.

Pertsonaia honek garapena izan zuen gero *Usoa* Bilduman (Erein, 2002-2003). Lau eleberri labur hauetan *Usoa* hazi da, bere bizimodu berriari guztiz ohitua dago, eta eguneroko arazo arruntei aurre egin behar die. Kasu honetan hirugarren pertsonan idatziak dira, eta galdu egin dute sarrerako lanaren tonu liriko hura.

Baina idazleak ez du umorea ahazten eguneroko gaiez aritzeko orduan, *Mustloa naaiz...* (SM, 1996) edo *Markos kantinera-n* (Elkar, 2002) bezala, eta jolaserako gogoazaltzen du sarri, bukaerarako ezustekoa gordez *Zazpigarrena eta azkena* (Berria, 2003 – Elkar, 2005) kasuan, edota album kontzeptura hurbiltzen *Lapurrak zooan* (Ibaizabal, 2008) lanean, non pertsonaiak lehenengo pertsonan hitz egiten digun, Jokin Mitxelenaren ilustrazioetan oinarritzen den ezkutaketa jokoa proposatuz.

Sariak

- *Matias Ploff-en erabakiak*. Lizardi Saria. Zarauzko Udala (1991)
- *1948-ko uda*. Baporea Saria. SM argitaletxea (1993)
- *Eztia eta ozpina*. A.M. Labaien Narrazio Saria. Tolosako Udala (1995)
- *Gizon izandako mutila*. Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza (1998)
- *Printze txikia*
 - Vitoria-Gasteiz Udaleko Haur eta Gazte Literatura Itzulpen Saria (2002)
 - IBBYko ohorezko zerrenda. Itzultzaileak (2004)
- *Paularen zazpi gauak*. (Juan Kruz Igerabiderekin batera) White Raven (Zozo zuria) zerrenda. Municheko Nazioarteko Haur eta Gazte Liburutegia (2003)
- *Bakarrik eta Buztangabe (Sola y Sincola.)* C.C.E.I. Saria (2006)
- *Pantaleon badoa*. Euskadi Saria: haur eta gazteentzako literatura. Eusko Jaurlaritza (2006)
- *Urrezko giltza*. IBBYko ohorezko zerrenda. Idazleak (2008)
- *Xia Tenzinen bidaia miresgarria*. Euskadi Saria: euskarazko haur eta gazte literatura. Eusko Jaurlaritza (2010)

Bibliografia

Ametsetako mutila. Elkar, 1991
Matias Ploff-en erabakiak. Erein, 1992
Gutun harrigarri bat. Elkar, 1992
Emakume sugearen misterioa. Alberdania, 1993
Jentzi. Erein, 1993
Ipuinkaria. Pamiela, 1994
1948ko uda. SM, 1994
Marigorringoak hegan. Giltza, 1994
Eztia eta ozpina. Alberdania, 1995
Biolin bat Maribeltxarentzat. Giltza, 1995
Bihotzerre. Elkar, 1995
Enara, zer berri? Alberdania, 1996
Ilargia ditarean. Elkar, 1996

Mustloa naaiz... SM, 1996
Sekretuen liburua. Alberdania, 1997
Gizon izandako mutila. Pamiela, 1997
Midasen eraztuna. Erein, 1998
Atlas sentimental: egonaldi bat Marokoko berbereen artean. Alberdania, 1998
Joanaren erregin aulkia. Aizkorri, 1998
Ostiraletako opila. Elkarlanean, 1998
Usoa, hegan etorritako neskatoa. Erein, 1999
Elur beltza. Erein, 1999
TitaNick. Eusko Jaurlaritza, 1999
Bakarrik eta buztangabe = Tailless and all alone. Baigorri, 2000
Magalik badaki. Anaya Haritza, 2000
Musuka. SM, 2001
Marraztuidazu gutun bat. Descleé de Bouver, 2001
Lehen kanpamendua. Erein, 2002
Zelatan. Erein, 2002
Paularen zazpi gauak (J.K. Igerabiderekin). Giltza, 2002
Markos kantinera. Elkar, 2002
Gaspar eta zuhaitzak. Aizkorri, 2002
Karpeta morea. Erein, 2003
Lekuko deserosoak. Vitoria-Gasteizko Udala, 2003
Bidaia kilikagarria. Erein, 2003
Zaldiko-maldikoan. Aizkorri, 2003
Zazpigarrena eta azkena . Elkar, 2003
Hirugarreneko sorgina = The witch on the third floor. Baigorri, 2003
Gaueko ibiltaria = El caminante nocturno. Vital Kutxa Gizarte-Ekintza, 2003
Atxiki sekretua: sorginaren eskuliburua. Elkar, 2004
Zabuetan. Erein, 2004
Estatua bat eta artista bi. Erein, 2005
Urrezko Giltza, Erein, 2005
Pantaleon badoa. Pamiela, 2005
Hiru lagun. Ibaizabal, 2005
Arroza eta tinta. Erein, 2006
Furia. Erein, 2007
Pantaleon lagunekin doa. Pamiela, 2007
Lapurrak zooan. Ibaizabal, 2008
Pikolo. Alberdania, 2008

Xia Tenzinen bidaia miresgarria. Ibaizabal, 2009

Hiru egun balearen sabelean. Pamiela, 2011

Itzulpenak

- *Emakume sugearen kasua; Jentzi:*
Dos casos únicos. (Alfaguara, 2000: itz. Ortuondo, I.) (Gazt.)
Dos casos únicos. (Alfaguara, 2000: itz. Luján, D.) (Kat.)
- *Marigorringoak hegan:*
Que llueva, que llueva. (Edebé, 1994: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
Marigorringoak hegan. 2008. (Koreera)
- *1948ko uda:*
L'estiu de 1948. (La Galera, 2003: itz. Vidal, J.) (Kat.)
- *Eztia eta ozpina:*
De fel e de mel. (Xerais, 2001: itz. Moo Pedrosa, X.M.) (Gal.)
De hiel y miel. (Alberdania, 2008: itz. Ortuondo, I.) (Gazt.)
- *Biolin bat Maribeltxarentzat:*
Un violín para Maribelcha. (Edebé, 1995: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
- *Mustloa naaiz...:*
Soy el mostooo... (SM, 1996: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
- *Gizon izandako mutila:*
El Chico que fue hombre. (Anaya, 2000: itz. Ortuondo, I.) (Gazt.)
- *Sekretuen liburua:*
El libro de los secretos. (Alfaguara, 2003: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
- *Midasen eraztuna:*
El anillo de Midas. (Edelvives, 2002: itz. Ortuondo, I.) (Gazt.)
L'anell d'en Mides. (Baula, 2003: itz. Hernández, P.J.) (Kat.)
- *Ostiraletako opila:*
El berenar dels divendres. (La Galera, 1998: itz. Cassany, B.) (Kat.)
El bollo de los viernes. (La Galera, 1998: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
El bollou los vienes. (Llibros del Peixe, 1998: itz. Llano, X.) (Astu.)
O bollo de os biernes. (Xordica, 1998: itz. Diest, C.) (Arag.)
O pastel dos venres. (Galaxia, 1998: itz. Rozados, D.) (Gal.)
- *Usoa, hegan etorri zen neskatoa:*
Kasai, vas arribar per l'aire. (La Galera. 1998: itz. Canals, A.) (Kat.)

- Paloma, llegaste por el aire.* (La Galera, 1998: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
Usoa, llegaste por el aire. (Edelvives, 2008: itz. Ortuondo, I.) (Gazt.)
- *Bakarrik eta buztangabe:*
Bakarrik eta buztangabe = Tailless and all alone. (Baigorri, 2000: itz. Draper, D.) (Eus.-Ing.)
Sola y Sincola. (Edelvives, 2005: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
- *Magalik badaki:*
La Magalí ja ho sap. (Barcanova, 2000: itz. Hernàndez, P.J.) (Kat.)
Magali por fin lo sabe. (Anaya, 2000: itz. Ortuondo, I.) (Gazt.)
Magali por fin o sabe. (Anaya, 2000: itz. Torres, C.) (Gal.)
- *Marraztuidazu gutun bat:*
Dibuixa'm una carta. (Descleé de Bouwer, 2001: itz. Olano, A.; Casasús, E.) (Kat.)
Dibújame una carta. (Descleé de Bouwer, 2001: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
- *Musuka:*
Muchos besos. (SM, 2001: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
- *Paularen zazpi gauak* (J.K. Igerabiderekin):
Set nits amb a Paula. (Edebé, 2002: itz. Vergés, E.) (Kat.)
Siete noches con Paula. (Edebé, 2002: itz. Zubizarreta, P.; Igerabide, J.K.) (Gazt.)
- *Zazpigarrena eta azkena:*
La séptima, la vencida. (Pearson, 2009: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
- *Hirugarreneko sorgina = The witch on the third floor.* (Baigorri, 2003: itz. Draper, D.) (Eus.-Ing.)
- *Atxiki sekretua:*
Guarda el secreto: manual para brujas. (Anaya, 2007: itz. López Gaseni, M.) (Gazt.)
- *Zabuetan:*
En los columpios. (Algar, 2004: itz. Carreño, S.) (Gazt.)
Al parc. (Bromera, 2004: itz. Crespo, A.) (Kat.)
No parque. (Xerais, 2004: itz. Chao Castro, I.) (Gal.)
Al gronxadors. (Círculo de lectores, 2005: itz. Crespo, A.) (Kat.)
- *Estatua bat eta artista bi:*
Una estàtua i dos artistes. (Bromera, 2005: itz. Viu, M.) (Kat.)
Una estatua y dos artistas. (Algar, 2005: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)

- Unha estatua e dous artista.* (Xerais, 2005: itz. Chao Castro, I.) (Gal.)
- *Hiru lagun:*
 - Hiru lagun.* (Koreera)
 - Os tres amigos.* (Tambre, 2008: itz. Torres, C.) (Gal.)
 - Tres amigos.* (Edelvives, 2005: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
 - *Pantaleon badoa:*
 - Pantaleón se va.* (SM, 2007: itz. Ortuondo, I.) (Gazt.)
 - *Arroza eta tinta:*
 - Arros i tinta.* (Bromera, 2006: itz. Abad, A.) (Kat.)
 - Arroz e tinta.* (Baía, 2006) (Gal.)
 - Arroz y tinta.* (Bromera, 2006: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)
 - *Furia:*
 - Furia.* (Baía, 2007) (Gal.)
 - Furia.* (Ed. del Pirata, 2007: itz. Grau i Salo, M.) (Kat.)
 - Furia.* (Bromera, 2007: itz. Martí, P.) (Kat.)
 - Furia.* (Algar, 2004) (Gazt.)
 - *Pikolo:*
 - Pikolo.* (Lóñez, 2010: itz. Erro, A.) (Gazt.)
 - *Xia Tenzinen bidaia miresgarria:*
 - El maravilloso viaje de Xía Tenzin.* (Edelvives, 2009: itz. Zubizarreta, P.) (Gazt.)

Obra lagina

Zubizarretaren pieza xaloenetako baten aurrean gaudela baiezza genezake. Bigarren pertsona erabilita, narratzaileak leunki azaltzen du neskato adoptatu honen istorio gogorra. Samina nagusi den arren, idazlea moldatzen da itxaropenari ere lekua uzten.

Estiloak Landaren *Iholdi* gogorarazten du, gai gogor bat oso modu sotilean emanaz, alferrikako hitz guztiak kendu eta esan nahi denaren muina bakarrik utzita.



Usoa, hegan etorritako neskatoa.

Il. Asun Balzola. Erein, 1999: 16-20. orr.

Usoa esaten dizute, hegan etorritako neskatoa. Eta beharbada horregatik, orain bezala, zerura begiratzea atsegin duzu, handik etorri zinelako, handik ekarri zintuztelako. Baina orain kezkatuta zaude eta sabelean hamaika mila inurri dabilkizula dirudi. Eta zeruak zure begirada tristea ikusi du.

—Kukuak ku-ku, eta dirua sakelean, aberatsa urte guztian —esan dizue arratsaldean andereñoak.

Baina zu kukua entzun gabe ere, aberatsa zara urte guztian. Horretaz ere ziur zaude. Ziur baino ziurrago.

Zeren zuk, Usoa, ez baitaukazu ama bakar bat. Zuk bi ama dauzkazu: hangoa eta hemengoa. Eta zure hango ama ez da bihurria, alproja eta aprobe txategia! Ez horixe!

Zure bigarren amari hemengo ama esaten diozu. Eta maite duzu, eta ez da ipuinetako amaorde horiek bezalakoa, gaiztoa eta bihozgabea. Baina zure lehenengo ama ere, hangoa, oso ona da eta oso maite duzu. Eta ez da kukua bezalakoa. Edo beharbada bai. Baina bere arrazoiak izango zituen egin zuena egiteko.

Zure hango amak Afrikatik hona bidali zintuen han gose handia zelako, eta gerra, eta biek, goseak eta balek, jende asko hil zutelako. Seguruenik zure hango ama eta hango familia ere bai. Beharbada horregatik ere hain atsegin duzu zerura begiratzea, hangoak oso gogoan dituzulako, hangoak nortzuk eta nolakoak ziren oso ongi gogoratzan ez duzulako. Hain zinen txikia!

Usoa esaten dizute hegan etorri zinelako. Eta zure hango amaren gutun bat daukazu. Eta horrek bai sentiarazten zaituela aberats. Zure hemengo etxera ekarri zintuztenean, gutun hori zen zure ekipaia guztia, zure ekipaia bakarra. Eta gutuna irakurtzea, zerura begiratzea bezain atsegin duzu.

EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURARI BURUZKO BALIABIDEAK

Galtzagorri Elkartea: euskal haur eta gazte literatura elkartea
www.galtzagorri.org

Basque Literature: euskal literaturaren atari eleaniztuna
www.basqueliterature.com
www.basqueliterature.com/es/basque/historia/hauretagazte

Armiarma: literatura sarean
www.armiarma.com

Euskal Idazleen Elkartea
www.idazleak.org

Euskal Editoreen Elkartea
www.editoreak.com

Euskal Irudigileen Elkartea
euskalirudigileak.com/eu/

Euskal Literatura Itzuliaren Katalogoa
www.ehu.es/ehg/eli/

HUHEZiko Haur Liburu Mintegiaren Irakurgida
www.mondragon.edu/eu/aktualitatea/aldizkariak/irakurgida

Etxepare Euskal Institutua
www.etxepareinstitutua.net

Kulturklik: euskal kulturaren gune elkarreragilea
www.kulturklik.euskadi.net

Sariak

Euskadi Sariak
www.euskara.euskadi.net/159-738/eu/contenidos/informacion/euskadi_sariak/eu_sariak/presentacion.html

Lizardi Saria
www.kulturazarautz.org

Etxepare Saria
www.etxeparesaria.net

Peru Abarka Saria
www.peruabarka.com

BIBLIOGRAFIA

- Calleja, S.; Monasterio X. (1988) *La literatura infantil vasca: estudio histórico de los libros infantiles en euskera*. Bilbao: Universidad de Deusto. Mensajero.
- Calleja, S. (1994) *Haur literatura euskaraz: lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*. Bilbao: Labayru Ikastegia. BBK.
- Calleja, S. et al. (1993) *Haur literatura*. Bilbao: Labayru Ikastegia.
- Etzaniz Erle, X. (1997) *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Iruña: Pamiela
- Etzaniz Erle, X. (1997) *Haur eta gazte literatura: kontzeptuaren definizio baten bila*. Iruña: Pamiela.
- Etzaniz Erle, X. (1997) *Euskarazko haur eta gazte literaturaren ilustratzaileak = Ilustradores de literatura infantil y juvenil vasca*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Saila.
- Etzaniz Erle, X.; Olaziregi, Mari Jose (1998) *Euskal haur eta gazte literatura idazleak = Basque writers for children and young people = Auteurs de littérature en langue basque pour les jeunes = Escritores de literatura infantil y juvenil en euskara*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila.
- Etzaniz Erle, X. (2005) *Euskal gazte literaturaren antologia*. Donostia: Elkar,
- Etzaniz Erle, X. (2005) *Euskal haur literaturaren antologia*. Donostia: Elkar,
- Etzaniz Erle, X. (2007) *Bela Kabelatik Ternuara: Atxagaren haur eta gazte literatura*. Iruña: Pamiela.
- Etzaniz Erle, X. (2007) *Literatura eta ideologia*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

- Etxaniz Erle, X.; López Gaseni, M. (2011) *XXI. Mende hasierako haur eta gazte literatura*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
- Etxaniz Erle, X.; López Gaseni, M. (2011) *Literatura infantil y juvenil vasca contemporánea*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, Departamento de Cultura, Euskera y Deporte.
- Igerabide, J.K. (1993) *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura*. Donostia: Erein.
- Kortazar, J. (zuz.); Etxaniz Erle, X. (zuz.); López Gaseni, M. (zuz.) (2011) *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Lertxundi, A. (1982) *Haur literaturaz*. Donostia: Erein.
- López Gaseni, M.; Etxaniz Erle, X. (2005) *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura*. Iruña: Pamiela.
- López Gaseni, M. (2005) *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*. Donostia: Utriusque Vaconiae.
- López Gaseni, M. (2006) *Literaturak umeei begiratu zienean*. Iruña: Pamiela.
- Olaziregi, M.J. (1998) *Euskal gazteen irakurzaletasuna: azterketa soziologikoa*. Bergara: Bergarako Udala.
- Olaziregi, M.J. (1998) Los jóvenes vascos y la lectura. *CLIJ. Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil* N. 101: 7-12 orr.
- Olaziregi, M.J. (1998) *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Donostia: Erein.
- Olaziregi, M.J. (1999) Mariasun Landaren literatur mundua: txikiaren handitasuna. Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura. *Oihenart: cuadernos de lengua y literatura* N. 17: 27-38 orr.
- Olaziregi, M.J. (2003) Mariasun Landa's Literary Universe, Or the Awakening of Basque Children's Literature. *Bookbird*, vol. 41, 35-41 orr.
- Olaziregi, M.J. (2004) "Literatura infantile e xuvenil vasca: diálogos desde a marxe". *Boletín Galego de Literatura. Monográfico: Para*

entenderte mellor. As literaturas infantís e xuvenís do marco ibérico 32, 121-139 orr.

Olaziregi, M.J. (2005) *Waking the Hedgehog: The Literary Universe of Bernardo Atxaga*. Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada.

Olaziregi, M.J. (2012) Vida e instrucciones de uso. *El calcetín suicida y Un cocodrilo bajo la cama*, de Mariasun Landa. En: Roig Rechou, Blanca Ana et al. (eds.) *A narrativa xuvenil a debate (2000-2011)*, Vigo: Ed. Xerais-LIJMI (USC). 177-185 orr.

UEUren Literatura Saila (1993) *Haur literaturaren inguruan*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.



Jone Arroita Jauregi

**Literatura infantil y juvenil vasca actual:
un catálogo**

Traducido por Jorge Giménez Bech, salvo mención expresa



Colección *Euskal Antologiak*

Dirección: Mari Jose Olaziregi

Diseño y maquetación: Jose Luis Agote

Ilustración de portada: Juan Azpeitia, 2012

© Jone Arroitauregi, 2012

© De los textos literarios: Pello Añorga, Pako Aristi, Bernardo Atxaga, Enkarni Genua, Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Karlos Linazasoro, Miren Agur Meabe, Joxantonio Ormazabal, Ruben Ruiz, Patxi Zubizarreta

© De la traducción al castellano: Jorge Giménez Bech

© De la traducción de los textos literarios al castellano: Genua, E.; Giménez Bech, J.; Igerabide, J.K.; Landa, M.; Meabe, M.A.; Ortuondo, I.; Sabán, A.

D.L. SS-1900/2012

ISBN 878-84-616-2312-9

Etxepare Euskal Institutua

Prim, 7 - 1

E-20006 Donostia-San Sebastián

etxepare@etxepare.net

www.etxepareinstitutua.net

Impresión: Leitzaran Grafikak, S.L. Martin Ugalde Kultur Parkea. Andoain (Gipuzkoa)

ÍNDICE

INTRODUCCIÓN	115
Pello Añorga.....	119
Pako Aristi.....	125
Bernardo Atxaga.....	129
Enkarni Genua.....	139
Juan Kruz Igerabide	145
Mariasun Landa	161
Anjel Lertxundi.....	171
Karlos Linazasoro	179
Miren Agur Meabe	185
Joxantonio Ormazabal.....	191
Ruben Ruiz	199
Patxi Zubizarreta	205
RECURSOS RELACIONADOS CON LA LITERATURA	
INFANTIL Y JUVENIL VASCA	215
BIBLIOGRAFÍA	217

INTRODUCCIÓN

–*¡Di trece!*
–*¡No hay trece!*¹

Cualquier selección conlleva la imposibilidad de abarcarlo todo, así como el riesgo de excluir autores u obras relevantes. Conscientes de que la presente antología participa de tal limitación, hemos optado por alinear doce autores, como hubiéramos hecho con los huevos en la huevera, con los meses del año o con los apóstoles en el pórtico de la iglesia, acogiéndonos al lema “*ez dok hamairu*”, hondamente arraigado en la cultura contemporánea vasca. Así como estamos convencidos de que los que están son, sabemos que también son algunos de los que no están, pero, en esta ocasión, hemos preferido dar vía libre a la magia del número.

–*¡Di nueve!*
–*Nueve letras tiene b-e-d-e-r-a-t-z-i;*²
[...] *uno es nuestro mundo.*

Cabe afirmar que la literatura infantil y juvenil vasca cuenta con una breve historia en la época contemporánea. En el siglo XX, a resultas del acoso padecido por el euskera y la cultura vasca durante la dictadura de Franco, el sistema educativo fue completamente castellano en el País Vasco Sur.

1. La expresión “*ez dok hamairu*”, traducible literalmente por “no hay trece”, ha quedado fijada en la tradición vasca como conjuro contra el maleficio o la mala suerte. (N. del T.)

LERTXUNDI, Anjel. (2002) Errak bat (eta II), 38-41. *Aizak eta aizan elkarrekin dantzaz* [Aizak y Aizan bailan juntos]. Elkar.

2. ‘Bederatzi’: nueve, en euskera. (N. del T.)

Unos años antes, y pasando al País Vasco Norte, podemos considerar a Marijane Minaberri como iniciadora de la nueva era de la literatura infantil vasca. Aunque otras le precedieron, su obra *Xoria kantari* [El pájaro cantor] (1965) es la de más acusado perfil literario, aunque también en las precedentes quedara patente su claro objetivo estético.

Poco a poco, en el conjunto del País Vasco y alrededor de la década de los 70, en los albores de la nueva escuela en euskera en torno al movimiento de las ikastolas, muchos de los jóvenes docentes que en ella comenzaron a enseñar constataron la urgente necesidad de crear libros de texto en euskera. Algunos de ellos mostraban, además, inclinaciones literarias, y para estos el empeño de aquella época supuso el inicio de una fructífera trayectoria.

—*¡Di cinco!*
—*Cinco son los continentes; [...]*
uno es nuestro mundo.

En la búsqueda de un modelo que guiara su escritura, aquellos escritores bebieron de dos fuentes distintas: por una parte, tenían ante sí los modelos contemporáneos europeos, como Gianni Rodari y su *Gramática de la fantasía*; Christine Nöstlinger y Maria Gripe, que cultivaban el realismo social; o Michael Ende, que proponía reflexiones acerca de los males de la sociedad a través de la fantasía. En esta vía cabe situar la obra de Mariasun Landa, y fue también el camino inicial del propio Lertxundi. Entre los que comenzaron a escribir en las décadas posteriores, Patxi Zubizarreta y Pako Aristi tienen algo en común con este origen.

—*¡Di once!*
—*Muchos³ son mis esfuerzos; [...]*
uno es nuestro mundo.

Pero, por otra parte, el compromiso con la recuperación de la literatura oral tradicional ha sido, asimismo, patente en la literatura

3. El autor juega con la polisemia del término euskérico 'hamaika', que denota tanto 'once' como 'muchos/as'. (N. del T.)

infantil y juvenil en euskera, compromiso impulsado por la intención de reparar la interrupción sufrida en su transmisión. De la mano de la investigación teórica, esa necesidad halló cobertura en obras como *Haur literaturaz* [Sobre literatura infantil] (Erein, 1982), de Anjel Lertxundi, o *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura* [Del pecho al habla: niño, oralidad y literatura] (Erein, 1993).

Las obras citadas ponen de relieve que la literatura oral ha supuesto para el instinto lingüístico el cobijo donde se han conservado las formas antiguas, y que tal tesoro da pie a la transmisión de un lenguaje afectivo, más allá del lenguaje instrumental que se trabaja en la escuela. En esa labor de recuperación, han resultado imprescindibles los testimonios recopilados por José Miguel Barandiaran (1889-1991), Resurrección María Azkue (1864-1951), José Gonzalo Zulaika, *Padre Donostia* (1886-1956) o Wentworth Webster (1828-1907), así como las aportaciones realizadas por Manuel Lekuona (1894-1987), Juan Mari Lekuona (1927-2005), Jesus Mari Satrustegi (1930-2003) o Joxe Arratibel (1923-2011). A partir de todo ello, y ateniéndose en mayor o menor medida a las fuentes, Anjel Lertxundi, Juan Kruz Igerabide, Pello Añorga o Joxantonio Ormazabal nos han ofrecido diversas obras en verso y prosa. No lejos de esta vía de recuperación, Enkarni Genua aportó a la literatura infantil en euskera el arte de las marionetas, impulsando en cierta forma el teatro.

—*Di siete!*

—*Siete días tiene la semana; [...]
uno es nuestro mundo.*

Ni que decir tiene —a toda verdad rotunda se contrapone siempre otra verdad más rotunda aún— que los escritores escriben por escribir, por el placer de crear o incluso, claro está, por necesidad; precisamente cuando se sintió liberada de las necesidades educativas, la literatura alzó el vuelo y comenzó a florecer también en otros territorios, momento en el que se incorporaron nuevas generaciones: unos más temprano, como Bernardo Atxaga, y otros posteriormente, como Karlos Linazasoro, Miren Agur Meabe o Ruben Ruiz.

Así, en 1990 surgió la asociación Galtzagorri Elkartea, con dos objetivos primordiales: impulsar la afición a la literatura entre los


niños y jóvenes y promover y dar a conocer la literatura infantil y juvenil vasca. La asociación está compuesta por personas relacionadas con ese tipo de literatura: escritores e ilustradores, narradores de cuentos, profesores, bibliotecarios, traductores y librerías.

